

**JOLAS DRAMATIKOA ETA TXOTXONGILOAK
HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELAN INKLUSIOA
ETA HEZKUNTZA EMOZIONALA LANTZEKO
BALIABIDE GISA**

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: Ibarra Balsera, Oihana.

ZUZENDARIA: Álvarez-Uria, Amaia.

GRADUA: Haur Hezkuntza

MINORRA: Dramatizazioa

2022/2023 ikasturtea

AURKIBIDEA

LABURPENA	2
1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA ETA OINARRI TEORIKOAK	5
3. HELBURUAK	15
4. METODOA	15
4.1. LANAREN DISEINUA	15
4.2. INFORMAZIOA JASOTZEKO eta ERREGISTRATZEKO TRESNAK	16
4.3. EDUKIEN ANALISIA	17
4.4. PARTEHARTZAILEAK	18
4.5. PROZESUA	19
5. ESKUHARTZEAREN PROPOSAMENA	19
6. EMAITZAK	23
6.1. DIAGNOSIA: BEHAKETA-TAULAREN ETA ELKARRIZKETEN EMAITZAK ETA ONDORIOAK	23
6.1.1. BEHAKETA TAULAREN EMAITZAK	23
6.1.2. ELKARRIZKETEN EMAITZAK	28
6.1.3. DIAGNOSIAREN ONDORIOAK	40
6.2. ESKUHARTZEAREN APLIKAZIOA	47
6.2.1. ESKUHARTZEAREN ONDORIOAK	48
7. ONDORIO OROKORRAK ETA HOBETZEKO ALDERDIAK	50
8. ESKERRAK	54
9. ERREFERENTZIAK	56
10. ERANSKINAK	61

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honen helburu nagusia gaur egungo Gipuzkoako Haur Hezkuntzako ikasgeletan jolas dramatikoaren eta txotxongiloen erabilera nondik norakoa den ikustea da, ikasgela baten behaketan eta hainbat irakasle eta adituren hitzak oinarri bezala harturik. Bestalde, hiru urteko ikasgela batean jolas dramatiko eta txotxongiloak lantzeko eskuhartze baten diseinua proposatu eta aplikatuko da. Modu honetan, lan honen bitartez, jolas dramatikoak eta txotxongiloek haurren ikaskuntza-prozesuan alderdi motorrean, kognitiboan, emozionalean, sozialean, etab. hainbat onura eta ikaskuntza ekartzen dituela ikusiko da. Gainera, bereziki, hezkuntza emozionala eta inklusio prozesua lantzeko baliabide aberasgarriak direla ikusi ahal izango da. Hala eta guztiz ere, gaur egungo EAEko eskoletan jolas dramatiko eta txotxongiloak une puntualetan edo proiektu zehatzetan erabiltzeko joera dagoela ikusiko da, baliabide hauek duten aberasgarritasuna askotan galduz. Hau horrela, irakasleen jolas dramatikoaren eta txotxongiloen inguruko prestakuntzak eta komunitate-elkarlanak honetan garrantzi berezi bat duela ondorioztatuko da.

Hitz gakoak: *drama, txotxongiloak, lehen haurtzaroko hezkuntza, hezkuntza-inklusioa, ikaskuntza sozioemozionala, irakasleen prestakuntza*

RESUMEN

El objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado es conocer el uso del juego dramático y de los títeres en las aulas de Educación Infantil de Gipuzkoa, a partir de la observación de un aula y de los conocimientos de profesores y expertos. Por otro lado, se propondrá y aplicará el diseño de una intervención en un aula de tres años para trabajar el juego dramático y los títeres. De esta forma, a través de este trabajo se podrá ver que el juego dramático y los títeres aportan diversos beneficios y aprendizajes en la parte motriz, cognitiva, emocional, social, etc. en el proceso de aprendizaje de los niños y niñas. Además, en particular, se podrá ver que son recursos enriquecedores para poder trabajar la educación emocional y el proceso de inclusión en el aula. Sin embargo, se observará que en las escuelas de la CAPV actual existe una tendencia a utilizar el juego dramático y los títeres en momentos puntuales o en proyectos concretos, perdiendo en muchas ocasiones la riqueza de estos recursos. Así, se concluirá que la formación y colaboración comunitaria del profesorado en torno al juego dramático y a los títeres tiene una especial importancia en este aspecto.

Palabras clave: *drama, marionetas, educación de la primera infancia, educación inclusiva, aprendizaje socioemocional, formación profesorado*

ABSTRACT

The main purpose of this Final Degree Project is to observe the use of dramatic play and puppets in today's Gipuzkoa Childhood Education classrooms, based on the observation of a classroom and the knowledge of several teachers and experts. On the other hand, the design of an intervention for dramatic play and puppets will be proposed and implemented in a three-year old classroom. In this way, through this work, it will be discovered that dramatic play and puppets can bring different benefits and learnings in the process of learning children in different aspects, such as, motor, cognitive, emotional, social, etc. In addition, in particular, it will be possible to see that the dramatic play and the puppets are very valuable resources to be able to work on emotional education and the inclusion process in the classroom. However, there is a tendency to use dramatic play and puppets in the current schools of the Basque Country at specific times or in specific projects, often losing the richness of these resources. In this way, it will be concluded that the training of teachers on dramatic play and puppets and the collaboration of the whole community is of particular importance in this regard.

Key words: *drama, puppets, early childhood education, inclusive education, socio-emotional learning, teacher training*

1. SARRERA

Haur Hezkuntzako Graduaren laugarren eta azken ikasturtean, irakaskuntza ikasketak amaitzeko azken urrats moduan Euskal Herriko Unibertsitateak ahalbidetzen duen lan bat da ondorengoa. Kontuan izanik, Gradu Amaierako Lan hau Dramatizazioko minorraren barnean sailkatzen dela, jolas dramatikoaren eta txotxongiloen inguruko gai bat aukeratzea erabaki da.

Lana aurrera eramán ahal izateko, hasteko, diagnosi bat egingo da, bi atal ezberdinez osatua egongo dena: errebisio bibliografikoa eta kasu azterketa. Alde batetik, jolas dramatikoaren eta txotxongiloen, inklusioaren eta hezkuntza emozionalaren inguruko berrikusketa bibliografikoa bat egingo da eredu teorikoa bat ezarri ahal izateko. Halaber, jolas dramatikoa eta txotxongiloak ikasleengan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ekartzen dituzten alderdi positiboak eta onurei garrantzia emango zaie, hezkuntza emozionala eta inklusioa aurrera eramaten diren alderdi positibo garrantzitsuenetarikoa bezala azpimarratuz. Horrela, honen inguruko oinarriko ezagutzak argi gelditu daitezzen, kontzeptuak landu dituzten zenbait adituren hitzei erreferentzia egingo zaie.

Beste alde batetik, diagnosa osatzeko, kasu azterketa egingo da, Gipuzkoako eskola batzuetan begirada jarritz, zehazkiago Lasarte-Oriako Landaberri-Garaikoetxea eta Tolosako Herrikide eskolatan. Horrela, gaur egungo jolas dramatikoaren eta txotxongiloen egoera Haur Hezkuntzako ikasgeletan nolakoa den ikusi ahal izango da. Hau aurrera eramateko, Landaberri-Garaikoetxeako 3 urteko ikasgela batean behaketa egingo da, eta bertako irakasle-tutoreari eta beste alde batetik, Herrikide eskolako irakasle bati elkarrizketa egingo zaie, eskoletako jolas dramatikoaren, eta bereziki txotxongiloen inguruko egoeraren emaitzak lortuz.

Kasu azterketa egin ondoren, Landaberri-Garaikoetxeako 3 urteko ikasgelan bertan aurrera eramateko eskuhartzea diseinatu eta aplikatuko da, honen emaitzak eta ondorioak jasoz.

Hori gutxi balitz, elkarrizketen bidez bi adituren jakintzak jasoko dira. Alde batetik, Tolosako Topic Museoko pedagogia saileko langile bat, eta bestetik, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaile bat. Modu honetan, aurretik egindako eskuhartzearen

potentziala nondik norakoa den ikusteko eta alderaketak egiteko balio izango du.

Amaitzen joateko, ondorioak bi multzotan sailkatuko dira, alde batetik, diagnosiaren ondorioak, eta bestetik, eskuhartzearenak. Diagnosiaren ondorioetan, 3 urteko ikasgelan egindako behaketa, bi irakasleei egindako elkarrizketak eta bi adituei egindako elkarrizketak kontuan hartuko dira, lortutako emaitza guztien artean loturak eginez, ondorioak ateraz. Eta eskuhartzearen ondorioei dagokienez, 3 urteko ikasgelan eskuhartzea aplikatu ondoren lortutako emaitzen arabera ondorioak aterako dira.

Bukatzeko, bai diagnosiaren, bai eskuhartzearen emaitzak kontuan hartuz, lan osoa biltzen duen bukaerako ondorio orokorrak aterako dira, eta hobetzeko alderdiak aipatuko dira.

2. JUSTIFIKAZIOA ETA OINARRI TEORIKOAK

2.1. Jolas dramatikoa

Piagetek (1990) argudiatzen duenez, jolasari esker, hurrek errealitatea manipulatzeko dute, hain zuzen ere, entsegu-errore metodoa erabiliz errealitatea barneratzen, erreproduzitzen eta ulertzen ikasten dute, azken finean, heldutasun-prozesuan eta garapen fisiko, psikiko eta emozionalean laguntzen duela dio. Álvarez-Uria et al.-ek (2015), teoria horretan sakonduz, lotura argia topatu dute jolasaren eta dramatizazioaren artean, izan ere, dramatizazioa jolasaren beraren funtsezko hiru zutabetan oinarritzen da: pertzeptzio-jolasak, motore-adierazkorrak eta imitaziokoak. Behaketa horretatik abiatuta, jolasaren, haurren garapenaren eta dramatizazioaren elkartzea eta ulertzea ahalbidetzen da.

Chalmers-ek (2010) baieztatzen du, hurrek, naturalki, antzezpena jotzen dutela, teatralak direla. Beren jokoetan eszenak eta pertsonaiak antzeztu dituzte, esate baterako, rol-jolasetan, mundua ezagutzen eta beren esperientziei zentzua ematen ikasten dute. Haur batzuek txiki-txikitatik dramatizazioa haien jolasetan txertatzen dute, beste batzuentzat aldiz, jolas mota hau erronka handiagoa da, eta ez dute espontaneoki aukeratu. Autore horren ustetan, esperientzia duen profesional on batek, haurrak lagundu eta motibatuko ditu arlo horretan, eta aukera egokiak emango dizkie jolas dramatikoa garatzeko, honek ekartzen dituen eta aurrerago aipatuko diren hezkuntza- eta gizarte-onurak bermatu ahal izateko.

Hau aurrera eraman ahal izateko, argi izan behar da zer den jolas dramatikoak. Tejerinak (1994) dionez, jolas dramatikoak antzerki-tresnak praktika ludiko batean erabiltzen dituen eta kanpo proiektiorik ez duen jardura da. Hain zuzen ere, gizabanakoaren adierazpen sortzailearen eta bere nortasunaren garapen integralaren zerbitzura dagoen praktika multzoa da. García del Torok (2004) dioenez, adierazpen askea sormenaren garapenaren oinarria da, hori dela eta, ikasgelako diziplinarteko dramatizazio-jarduerak ikasleen garapenerako funtsezko elementu gisa planteatzen ditu.

Hori kontuan hartuta, Tejerinak (1994) jolas dramatikoak edo dramatizazioak barne hartzen dituen eta eskolan aurrera eraman daitezkeen jardunbideetako batzuk azaltzen ditu: imitazioak, inprobisazioak, rol-jokoak, ipuinen dramatizazioak, taldeak asmatutako istorioak, egile-testuen egokitzapenak, etab. Eta adierazpen mota guztiak lantzen dira: linguistikoa, gorputzekoa, plastikoa eta erritmiko-musikala. Gainera, hainbat teknika erabil daitezke: istorioak egitea, abestiak eta erritmoak konposatzea, mozorroak egitea, maskarak egitea, objektu eszenografikoak sortzea, dekoratuak margotzea, etab. Hau horrela izanik, Onieva (2011) baieztatzen duen moduan, dramatizazioari esker, poema bat, kontakizun bat edo matematikako problema bat ere dramatizatu daiteke hainbat jardura eta ariketaren bidez. Azken finean, Navarrok (2005) esaten duen bezala, edozein jolasi aplikazio didaktiko bat eman dakioke, kontzienteki planteatzen bada.

Bestalde, Motos-entzat (2009), dramatizazioa ezagutzaren beste esparru bat da, hizkuntza propioa duena eta antzerkigintza hezkuntza-errekurtso didaktiko gisa erabiltzen duena. Hala, ikaskuntzarako oso erabilgarria da, dramatizazioaren bidez haurrek gaitasun komunikatiboak eta adierazgarriak, eta trebetasun sozialak garatzen dituztelako. Hau horrela izanik, aditu horrek pentsatzen du, eskoletako eguneroko bizitzetan presente egon beharko litzatekeela zenbait arrazoiengatik. Alde batetik, gorputza bizitzeko aukera ematen duelako, gorputzaren sentimen-pertzepzioa hobetzen duelako, eta beste alde batetik, komunikazioa lantzen delako, hizkuntza aberastuz eta garatuz. Gainera, emozioen kudeaketa lantzen da, eta taldeko sentimendua ere indartzen da.

Honetaz gain, jolas dramatikoaren bidez, elkarrekintzazkoa eta kolaboratiboa izanik, ikasleek ikaskuntza soziala garatzen dute eta norberaren portaeraren ulermena gertatzen da. Gainera,

enpatia lantzeko aukera ematen da, beste kideen rolean sartuz eta sentsazio eta bizimodu ezberdinak ezagutzuz (Tejerina, 1999).

Hori gutxi balitz, dramatizazioa egokia da ikasleek sormen-prozesu batean parte har dezaten, eta prozesu horrekin hainbat egoera eta arazori modu espontaneoan erantzuten ikas dezaten. Hau horrela, irakaslea, ez da soilik informazio-igorlea izango, baizik eta katalizatzailea ere izan beharko dela, esperientzian parte hartuz eta antzerki-tekniken oinarritzko ezagutza izanik (Motos eta Tejedó, 1999). Hain zuzen ere, Eines eta Mantovani-ren ustez (1980) irakasleak dramatizazioa ulertu ahal izateko, honen inguruko lanketa eta esperimentazioa egin beharko ditu.

Dramatizazioaren helburuei dagokienez, ikuspegi artistiko-sortzaile batetik, Barret eta Lafferriereren arabera, Onieva (2011) eskuratua, hauek lirateke: hizkuntza-trebetasunen garapena hobetzea, sormen-adierazpenean aurrera egitea, gaitasun soziala hobetzea, eta, ondorioz, beren buruarekiko konfiantza lortzea, hainbat egoera eta testuingurutan (errealak eta fantastikoak) moldatzea eta irudimena aktibatzea.

Haur Hezkuntzako dekretuan (Eusko Jaurlaritza, 2015) nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuan dramatizazioari aipamena egiten zaio. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari dagokionez, gorputz-hizkuntzako multzoan, ikasleek dramatizazio eta imitazioko jolasetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartzeko interesa izan behar dutela agertzen da. Bigarren zikloari dagokionez, hitzezko eta idatzizko komunikazio multzoan, literatura-testu errazak dramatizatzen parte-hartu behar dutela dio, eta gorputz-hizkuntzaren multzoan, dramatizazio eta imitazioko jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartu behar dutela dio. Hori gutxi balitz, etapako 10. helburuaren arabera, ikasleek arte-produkzioetan antzerkiaren eta gorputzaren bidez sortutako produkzioetan parte hartu behar dute askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Jolas dramatikoan uste osoa dago pertsona artista handi bihurtzen dela gaitasun bereziekin eta lan eginez, baina artearen ernamuina eta adierazpen estetikoaren beharra gizaki bakoitzarengana dagoela, eta hura garatzea osasungarria eta gomendagarria dela pentsatzen da (Tejerina, 1994).

2.2. Txotxongiloak

Martínez Moner-en arabera (2008) askotan, txotxongiloak beste dibertimendu edo entretenimendu bat bezala erabiltzen dira ikasgeletan, eskaini dezaketen aberastasun-potentziala galduz. Adituaren ustetan, txotxongiloek ikaskuntza ugari sortzen dituzte, eta jakintza (kontzeptuak, alderdi kognitibo hutsa) ez ezik, egiten jakitea (prozedurak, metodoak, teknikak eta estrategiak) eta izaten ikastea (arauak, balioak eta jarrerak) dakarte. Horrenbestez, egileak dioenez, baliabide honek aukera ugari eskaintzen ditu, baina irakasleek ez dituzte beti aukera horiek balioesten jakin.

Carlos Conversok (2000) txotxongiloa definitzen du jarduteko eta irudikatzeko gai den irudi plastiko gisa. Hala ere, Curcik (2007) nabarmentzen du alderdi plastikoa, aberastasun iturri garrantzitsua izan arren, ez dela nahikoa txotxongiloa definitzeko: objektu bat txotxongilo bihurtzeko, beste maila batean kokatu behar da, nortasuna eman behar zaio, hau da, pertsonaia bat sortu behar da. Gainera, pertsonaia bat interpretatzean eta errepresentazioaren eremuan kokatzean alde aurreko intentzionalitate bat egon behar da; beraz, txotxongiloa hainbat teknikaren bidez animatzeko sortzen den objektu bat da, bizitza simulatzeko ilusioa sortzeko helburuarekin.

Rogozinskik (2001) ere ideia hau aurrera eramaten du esanez txotxongilo bat animatzea ez dela manipulazio hutsa, izan ere, mugimenduen erantzun antolatu bat baino askoz gehiago dela. Autorearen ustez, objektu bat animatzea eszenan arma bat jartzea da, txotxongilo batean gauzatuta desplazatzen den arima bat da. Manipulatzailerik batek mugitzen duen objektu baten eta animatua den beste baten arteko aldea honakoa da: lehena, informatzen duen txotxongilo bat da, eta bigarrena, aldiz, komunikatzen duen eta publikoaren sentimenduekin elkarriketa bat ezartzen duen txotxongiloa da.

Sormena sustatzeak espazio jakin bat eskatzen du ikasgelan, eta irakaslearen sormenezko bitartekaritza ere, hain zuzen ere, sorkuntza askea eta haurren subjektibotasuna adieraztea ahalbidetuko duen irakaslearen bitartekaritza, baita sorkuntzaren bidez emozioak eta ideiak askatasunez adieraztea ahalbidetuko duena. Horregatik guztiagatik, txotxongiloa oinarritzeko tresna izan daiteke hezkuntza plastikoan adibidez, bere aukera didaktikoak diziplinartekoak eta askotarikoak izanik (Mesas, 2019).

Nahiz eta, gaur egun ezarrita dagoen Haur Hezkuntzako dekretuan (237/2015) txotxongiloen aipamena ez den egiten, txotxongiloa milaka urte dituen genero eszeniko bat da, non eskolak lehen mailako hezkuntza-tresna bat aurkitu ahal duen. Kultura eta garai guztietan dagoen elementua da, curriculumeko edozein irakasgairen irakaskuntzan eta, batez ere, eskolako literatura-hezkuntzan lagungarri izan daitekeen tresna, ikuspegi ireki, konparatu, dialogiko eta kulturartekoan.

Miguel Ángel Zabalzaren (2008) ustez, txotxongiloen lanketa gelako dramatizazioa eguneratzeko eta zehazteko aukeretako bat da, pertsona osoa inplikatzeko den jardura bat baita: emozioak, mugimen-trebetasunak, hizkuntza, adierazkortasuna, sentsibiltatea, ezagutzak, etab.

Txotxongiloek aukera hauek eskaintzen dizkiete ikasleei ikaskuntza prozesuan: adierazpen sortzailea garatzea, irudimena estimulatzea eta hedatzea, ahotsa eta mintzamena lantzea, adierazpena eta proiektzioa hobetzea, denboraren koordinazioa eta zentzua garatzea, autokonfiantza eta asebetetze pertsonala areagotzea, modu onargarrien bidez beldur, agresibitate eta frustrazioak askatzea, interakzio sozialeko trebetasunak lantzea, etab. (O'Hare, 2005b).

Hala, txotxongiloak forma artistiko, sortzaile eta adierazkorrak dira, haurrentzat eskuragarria dena eta hezkuntza-prozesua indartu dezakeena: baliabide honen bidez, ingurunera irekita egoten, modu biziago batean bizitzen eta hitzekin eta ekintzekin adierazten irakasten dugu. (Albiach, 2013b). Szulkin eta Amado (2006) bat datoz argudiatzen dutenean txotxongiloak jolas dramatiko gisa erabiltzea gizarte-elkarreragineko egoeretatik abiatuta, hainbat ezagutza eta trebetasun ikastea sustatzen duen tresna dela.

Martínez Monarrek (2007) dio txotxongiloa ikasgelan baliabide gisa erabiltzean garrantzitsuena teknika mistoak erabiltzea eta txotxongiloa bere ahalmen guztiekin aztertzea izango litzatekeela; izan ere, mestizajea eta estiloen fusioa baitira ikasgelako lanaren barruan sormen-aukera gehien eskaintzen dituztenak. Gainera, Mesas-ek (2019) gehitzen du txotxongiloa arte eszenikoetatik eta musikaletatik hurbilen dagoen adierazpen plastikoa dela: antzerkia, dantza, performancea dakartzalako. Txotxongiloak beste diziplina artistiko batzuekiko harremana eta hibridazioa ahalbidetzen du, haurren pertzepzio-mundua zabalduz

eta ikaskuntza-prozesuan pertsonaren garapen integralaren hainbat arlo garatzen lagunduz: garapen fisikoa, motorra, kognitiboa, adierazkorra, emozionala, afektiboa eta soziala.

Bestalde, Mesas-ek (2019) gehitzen du, gorputz adierazpenak ere berebiziko garrantzia hartzen duela txotxongiloekin lan egiterakoan, diziplinartekotasuna kontuan hartuz. Hasteko, alde batetik, txotxongiloekin lan egiterakoan haurrek haien gorputzaren kontzientzia eta gorputz-eskema lantzen dituzte, txotxongiloaren gorputz atal ezberdinak zeintzuk diren eta non dauden ikusiz. Beste alde batetik, baliabide artistiko eta adierazkor bat denez, haurrak bere gorputzaren alderdi subjektiboenak, esperientziak, bizipenak eta gorputz-sentsazioak landu eta komunikatu ahal izango ditu.

Ildo beretik, lanketa honetan, ikasleek prozesuan duten inplikazioa mailakatu daiteke, esate baterako, antzezpen soiletik hasi eta istorioa, eszenografia eta txotxongiloak berak sortzera arte, bai eta gertakarien edo egoeren narrazio soiletik hasi eta antzezpenera arte (Zabalza, 2008).

Hala ere, irakasleen kolektiboak oro har presentzia unibertsal horren balorazio positiboa egin arren, oso urriak dira irakasleen hasierako edo etengabeko prestakuntzaren zerbitzura dauden argitalpenak eta formakuntza. Era berean, kasu askotan, txotxongiloarekiko aurreiritziak – prestakuntzarik ezak berak eragindakoak – dira haren erabilera mugatuaren eta, batzuetan, okerreko erabileraren oinarrian daudenak (Albiach, 2013a).

2.3. Hezkuntza emozionala

Pertsona batzuen arazo asko analfabetismo emozionalarekin lotuta daude (Bisquerra, 2003). Behar hauei erantzuna emateko sortzen da hezkuntza emozionala: bizitzarako prestatzeko eta heltzeko modu bat da (pertsonala, soziala, familiara, profesionala). Honen bidez, emozioei buruzko ezagutzak eta trebetasunak garatzea proposatzen da, haurra eguneroko bizitzan planteatzen diren erronkei aurre egiteko gai izan dadin (Bisquerra, 2005)

Badirudi haur askok zailtasunak dituztela beren arazoak kudeatzeko, arreta jartzeko, beren bulkadak kontrolatzeko, beren lanagatik arduratsu sentitzeko edo ikaskuntzan interesatzeko... Hezkuntza emozionalak trebetasun horiei eusten lagunduko die, hori dela eta da hain garrantzitsua bere beharra eskolan (Gonzalez Garcia, 2015). Haur Hezkuntzako dekretuan

aipatzen den moduan, norbera izaten ikasteko oinarrizko zehar kompetentzian, hain zuzen ere, honi aipamena egiten zaio esanez, haurrak pixkanaka barneko eta kanpoko munduak bereizi behar dituela, eta garapen pertsonalaren dimentsio ugariak eraikitzen lagundu behar dio helduak haurrari; hala nola, emozioak, haurrak bere buruaz duen kontzeptua, autoestimua eta autonomia (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Hezkuntza emozionalaren barruan hauek dira Bisquerrak (2005) planteatzen dituen oinarrizko edukiak: norberaren emozioen kontzientzia, autoestimua, komunikazio afektiboa eta eraginkorra, pertsonen arteko harremanak, gatazken konponketa, bizi-trebetasunak eta bizi-kalitatea. Haur Hezkuntzako dekretuan (Eusko Jaurlaritza, 2015) eduki komunen artean gorputzaren eta emozioen autoerregulatzea ere aipatzen da.

Gainera, Motos-ek (2003) azaltzen duen moduan, emozio bat sentitzen denean, ikaskuntza-lotura emozional bat sortzen da, ikaskuntza hori denboran atxiki eta iraun dezan. Hain zuzen ere, emozioa da ikaskuntza-prozesuaren %70aren erantzulea.

Horretarako, garrantzitsua izango da, hasteko, ikasleek kontzientzia emozionala garatua izatea. Pellicer-en (2011) ustez, kontzientzia emozionala norberaren emozioez eta besteen emozioez jabetzeko gaitasuna da, baita testuinguru jakin bateko giro emozionala antzemateko trebetasuna ere. Hala ere, behin kontzientzia izanda, batzuetan zaila da norberaren emozioak adieraztea edo kanporatzea. Aditu horren ustez hau errazteko urrats bat besteen emozioak ulertzea da. Besteen emozioak ezagutuz, haurra gero eta trebeagoa izango da sentitzen dituen emozioak hautematen eta identifikatzen.

Hau horrela izanik, jolas dramatikoak, baliabide aberatsa izan daiteke, hain zuzen ere, honen bidez, ikasleen portaera sozial egokia sustatzen delako, ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo, baita egoera emozional orekatu bat ere, garapen psikologiko egokia bermatuz. Hala, jarduera dramatikoaren bidez emozioak eta energia erreprimituak askatzea lortzen da, tentsioak erlaxatuz, eta horrela ikasleengan osasun mental handiagoa lortuz (Eisner, 1972).

Jolas dramatikoaren bidezko ikaskuntza-prozesuak alderdi hauek hartzen ditu bere baitan: enpatia bultzatzea, herabetasuna gainditzea, umore-sena garatzea, eta talde-harremanak eta hitzik gabeko komunikazioa sustatzea (Onieva, 2011).

Ildo beretik, Davidson-ek (1996) argudiatzen du, dramatizazioak, izaera holistikoa duenez, parte-hartzaileek beren barne emozioak eta sentimenduak komunikazio- edo arte-adierazpen desberdinen bidez adieraztea ahalbidetzen duela. Horrela, parte-hartzaileek beren ezagutza hizkuntza pertsonal eta aktiboago baten bidez eraiki ahal izango dute, komunikazio-iturrietan aberatsa den ingurune batean.

Hori dela eta, kontuan hartu behar da haurren ingurunea, González García (2015) baieztatzen duen moduan, konfiantzazko giro batek norbera den bezala, komunikatzea eta adieraztea ahalbidetzen baitu. Horregatik, dramatizazio espazio pribilegiatua da zenbait egoeratan izaten ditugun emozioak, sentimenduak eta jokabideak aztertzeko. Hain zuzen ere, Onieva (2011) argudiatzen du dramatizazioa oso lotuta dagoela adimen emozionalaren garapenarekin, baita parte-hartzailearen alderdi kognitibo, afektibo eta psikomotorrekin ere. Hori dela eta, jolas dramatikoa emozioen bidezko lanketa bat izan daiteke.

Hari beretik, Haur Hezkuntzako dekretuan, oinarrizko kompetentzia espezifikoaren artean, kompetentzia motorren bidez, haurrak gorputz-adierazpena landuz ideiak eta emozioak adierazi, eta gainerako pertsonen adierazpenak egokitasunez interpretatu eta balioetsiko dituela aipatzen da (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Bestalde, dramatizazioaren barnean, txotxongiloen erabilera ere oso baliagarria izan daiteke hezkuntza emozionalaren lanketan. Hain zuzen ere, txotxongiloekin pertsonaiak eta istorioak birsortzeak informazioa barneratzen eta gogoratzen laguntzen die haurrei, istorioak burutik eta bihotzetik kontatu ahal izan ditzaten. Txotxongiloek lotura emozionala eta kognitiboa ezartzen dute ideiekin, informazioarekin, istorioekin, pertsonaiekin, literaturarekin eta bizipen-egoerekin (O'Hare, 2005a). Izan ere, Delgado Carrascok (2011) dioenez, txotxongiloak haurren egoera emozionalaren proiektzio edo bitarteko bat dira, haiekin haurra libre sentitzen baita nahi edo behar duena eta agian ausartzen ez dena adierazteko, bere segurtasun ezak gaindituz eta zintzotasunez agertuz, bere nortasun ezkutua ere aterako du.

Horretaz gain, txotxongiloek haurrek beren ingurunearekin duten elkarreraginean laguntzen dute, mezu positiboak transmititzea eta printzipio etikoak irakastea ahalbidetzen dutelako, eta horrek harreman afektiboak errazten ditu (Mesas, 2019).

Bestalde, irakaslearen paperari dagokionez, dramatizazioa aurrera eramaterakoan, eta hezkuntza emozionala kontutan hartuz, Chalmers-ek (2010) dionez, garrantzitsua da ikasle bakoitzaren uneko egoera emozionala ezagutzea: nekatuta dagoen, triste dagoen bere laguna etorri ez delako, traumaren bat edo une gogor bat igarotzen ari den... Irakasleak haurren bizitzetan gertatzen ari dena ezagutzen badu, zenbait portaeraren aurrean malguagoa izatea, ikasleren batek aurrera geldoago egitea onartzea edo aparteko laguntza, erronkak edo estimulua eskaintzea ahalbidetzen da saioen etekinik handiena lor dadin.

Gainera, ikaskuntza askotan ematen da adibidearen eta imitazioaren bidez. Hau horrela izanik, irakasleek emozioak kudeatzeko eredu jakin bat transmititzen dute, haien ikasleen bizitza emozionalean ondorio iraunkorrak izaten dituen (Fernández-Berrocal et al., 2002). Hori dela eta, irakasleak haurrei erakutsi behar die berak ere lilura, harridura, poza, tristura edo haserrea senti ditzakeela, eta sentimendu horiek eta hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioaren erabilera sustatu behar ditu haiengan (Chalmers, 2010).

2.4. Inklusioa

UNESCO-ren hitzei dagokionez, Aguirre Jácquez-etik eskuratua (2020), hezkuntza inklusiboa ikasle guztien beharren aniztasunari erantzutea bermatzen duen prozesua da, ikaskuntza prozesuan, eta kultura eta komunitate ekintzetan parte-hartze handiagoaren bidez, eta eskusioa hezkuntza sistematik kanpo utziz lortzen dena. Hau da, Martínez-ek (2017) dioen moduan, ez da nahikoa izango Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleak eskolan egotearekin, aldiz, ikasle hauek komunitatean barneratuta egon behar dira, eskola-bizitzaren parte izanik.

Gaur egungo Haur Hezkuntzako curriculumean agertzen den moduan (Eusko Jaurlaritz, 2015) eskola inklusiboa izateko haur guztiek kalitatezko hezkuntza jaso behar dute, guztiei modu justu eta zuzenean aukera berdinak emanik. Ikastetxe inklusiboek alor pertsonalean, akademikoan eta sozialean aurrera egiteko hezkuntza-aukerak eta laguntza –curriculum-alorrekoa, pertsonala edo materiala– eman behar dizkiete haien ikasle guztiei. Horretarako, haur guztiei egokitutako testuinguru bat sortu behar da, desberdintasunei erantzuten diena eta talderik edo pertsonarik ahulenei babes eta laguntza zehatzak emango dizkiena.

Honekin jarraituz, kontuan izan behar da inklusioaren inguruan hitz egiterakoan, ez dela integrazio kontzeptuarekin nahastu behar, bien helburu nagusiak guztiz desberdinak baitira. Sapon-Shevin-ek (2014) azaltzen duen moduan, askok pentsatzen baitute inklusioa HPBak dituzten ikasleak hezkuntza esparru tradizionaletan barneratzean datzala, integrazio printzipioak aurrera eramaten duen bezala, haur hauek hezkuntza “normaltasunera” bueltatzeko helbuarekin.

Era berean, Dussan-ek (2010), hezkuntza inklusiboa komunitate jakin bateko ikasle guztiak elkarrekin ikastea bezala definitzen du, haien gizarte edo kultura baldintzak edozein direla ere, desgaitasunak dituztenak barne.

Inklusioaren bidez hedatu nahi den ideiarik garrantzitsuenetako bat, aniztasuna ikasle guztiengan dagoela da, hau da, ikasleak gizaki diren moduan, ezberdintasunez eta berezko egiten dituzten ezaugarriez osatuta egongo dira, hori dela eta, irakasleak bere ikasle guztiak curriculumean sartu behar ditu, eskolaldi osoan zehar, guztiak beharrak izango baitituzte, aldi baterakoak edo modu iraunkorrean, baina hor egongo dira. Azken finean, desberdintasunak pertsonen bereizgarri bezala ikustea eta gizakiak aberasgarri egiten dituela onartzean datza (Maldonado, 2011).

Egunez egun inklusioa lantzen duten irakasleen arabera, txotxongiloekin jolas dramatikoak egitea, esparru bikaina da urritasun fisiko edo psikikoak dituzten haurren inklusio-prozesua aurrera eramateko, eskaintzen dituen zereginetan inplikatzeko modu eta ekintza sorta zabala dela eta (Zabalza, 2008). Hain zuzen ere, Albiach-ek (2017) baieztatzen du gaur egun, txotxongiloen lanketa, eskaintzen dituen berezitasunengatik, behar bereziak dituzten ikasleek zailtasunen tratamenduan, hezkuntzako lehen etapetan, bizitasun gehien duen ildoetako bat dela ikasgelaren testuinguruan.

Hain zuzen ere, txotxongiloak irakaskuntzaren etorkizunari buruz egiten ditugun galdera askoren erantzun izan daitezke. Azken batean, kulturen arteko ikuspegi irekitik pentsatutako proposamena da, tradizioen eta identitate anitzen arteko elkarrizketa ahalbidetzen duena, elkar ezagutzea eta elkar ulertzea helburu hartuta, aniztasunaren tolerantziarako, errespeturako eta balorazio positiborako bidea izan nahi duen eskolaren esparruan (Albiach, 2013a).

3. HELBURUAK

GrADu Amaierako Lan honetan zehar ondorengo helburuak betetzea bilatuko da:

1. Jolas dramatikoaren eta txotxongiloen erabileraren behaketa egitea, eguneroko baliabide gisa, Haur Hezkuntzako ikasgela batean, inklusioa eta hezkuntza emozionala modu horretan lantzen diren ikusteko.
2. Ikastetxe ezberdinetako Haur Hezkuntzako irakasleei jolas dramatikoaren eta txotxongiloaren erabileraren inguruko elkarrizketak egitea baliabide horiei buruzko haien ezagutza jasotzeko.
3. Txotxongiloen munduko adituei txotxongiloaren erabileraren inguruko elkarrizketak egitea, baliabide didaktiko honi buruz daukaten jakintzak jasotzeko.
4. Behaketatik eta elkarrizketetatik eskuratutako informazioaren araberako eskuhartze bat diseinatzea eta aplikatzea.

4. METODOA

4.1. LANAREN DISEINUA

GrAL honetan erabili den metodologia mota kualitatiboa izan da. Salgadok (2007) dioenez, ikerketa mota hau egoeraren esanahien eta definizioen ulermen sakona lortzeko saiakera gisa ikus daiteke, egoeraren ezaugarrien edo jokabidearen neurri kuantitatibo baten ekoizpena baino gehiago. Lan kualitatibo baten barruan diseinuaren inguruan hitz egitean, ikerketa-prozesuan erabiltzen den abordatze orokorra, malguagoa eta irekiagoa, eta ekintzen ibilbidea eremuak arautzen duela ulertzen da (kasu honetan, parte-hartzaileak); horrela, diseinua giroaren baldintzetara egokituz.

Lan honetan hasierako diagnosi bat egingo da. Diagnosiaren antolaketa ulertzeko moduan, alde batetik, errebisio bibliografiko bat aurrera eramango da, bestetik, kasu azterketa bat egingo da, non Gipuzkoako eskola ezberdinetan Haur Hezkuntzan jolas dramatiko eta txotxongiloen egoera nolakoa den ikusi ahal izango den. Zehazkiago, Lasarte-Oriako Garaikoetxea-Landaberrri Ikastola eta Tolosako Herrikide Eskola izango dira aztergai. Hala, Garaikoetxea-Landaberrriko ikasgela baten behaketa egingo da, eta ikasgelako irakasle-tutorearekin elkarrizketa bat aurrera eramango da, Herrikide eskolaren kasuan,

irakasle batekin elkarrizketa egingo da.

Beste alde batetik, bi adituen kolaborazioa lortuko da elkarrizketen bidez, kasu honetan, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaile bat eta Tolosako Topic Museoko pedagogia saileko langile bat. Honen bidez, Gipuzkoako Haur Hezkuntzako ikasgeletan gertatzen dena, eta adituen jakintzak eta pentsatzen dutena alderatu ahal izango da, haien gomendioak kontuan hartuz.

Hasiera batean, eskuhartzearen diseinua eta aplikazioa diagnosia egin ondoren aurrera eramatea pentsatuta zegoen, aldiz, ezin izan da ezarritako ordena guztiz mantendu. Hain zuzen ere, Garaikoetxea-Landaberriko ikasgela baten behaketa egin eta ikasgelako irakasle-tutorearekin elkarrizketa bat aurrera eraman da, eta honen ondoren, ikasgela horretan bertan aurrera eramateko eskuhartzea diseinatu eta aplikatu da. Honen ondoren, Tolosako Herrikide eskolako irakasleari elkarrikezketak egin zaio, eta jarraian, bi adituei. Modu honetan, aurretik egindako eskuhartzearen potentziala nondik norakoa den ikusteko eta alderaketak egiteko balio izan du.

4.2. INFORMAZIOA JASOTZEKO TEKNIKAK eta TRESNAK

Lanak bi informazio iturri mota nagusi izan ditu: behaketa eta elkarrizketak.

Alde batetik, kasu azterketa egiteko behaketa-taula bat erabili da, zeina Haur Hezkuntzako 3 urteko ikasgela batean behaketa-lana aurrera eramateko erabili den. Fuertes-en (2011) hitzetan, behaketa oinarrizkoa da ez soilik ikasleen jarrera eta jokabideei dagokienez, baizik eta ebaluazio eta hausnarketa tresna globalago bat bezala, helburu bezala irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren, hezkuntza programen eta ikastetxeko irakasleen jardunen hobekuntza duena. Hain zuzen ere, helburua ingurune informatiboa biltzea izango da, behaketa ikasgelako ikerketa-teknika gisa erabiliz. Hala, argi utzi nahi da ikasgelako portaerak ez direla epaitu, baizik eta benetako testuinguru batetik informazioa bildu dela, hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da behatzailearen kokapena, subjektibotasunak eragina izan dezakeelako.

Honetaz gain, informazioa sakoneko elkarrizketen bidez jaso da. Hain zuzen ere, bai irakasleei (LasarteIrakaslea eta TolosaIrakaslea), bai adituei (TolosaAditua eta BilboAditua) gaiaren inguruko haien iritzia eta jakintzak jasotzeko asmoz elkarrizketak egin zaizkie. Taylor et al.-en (2008) hitzetan, elkarrizketa kualitatiboak malguak eta dinamikoak dira. Ikertzailearen eta informatzaileen arteko aurrez aurreko topaketak sakoneko elkarrizketa kualitatibotzat jotzen dituzte. Topaketa horiek informatzaileek beren bizitzei, esperientziei edo egoerei buruz dituzten ikuspegiak ulertzera bideratuta daude. Hala, berdinen arteko elkarrizketaren ereduari jarraitzen diote, eta ez galdera-erantzunen truke formalari.

Informazioa erregistratzea ere beharrezkoa izan da, horretarako, elkarrizketetan audio grabazioak egin dira.

4.3. EDUKIEN ANALISIA

Segidan, informazioa analizatzeko zein teknika erabili diren argituko da. Lan hau kualitatiboa denez, edukien analisisa erabili da.

Behaketa taularekin analisisa egiteko gai eta azpigai batzuk finkatu dira:

- Jolas dramatikoak
 - Jolas dramatikoak irakasleak gidatua
 - Gidatu-gabeko jolas dramatikoak
- Txotxongiloak
 - Irakaslearen txotxongiloen erabilpena
 - Ikasleen txotxongiloen erabilpena
- Inklusioa
- Hezkuntza emozionala

Elkarrizketen analisisa egiteko gai eta azpigai batzuk finkatu dira:

Jolas dramatikoak Practicum III-ko ikasgelan:

- Irakaslearen aurkezpena
- Jolas dramatikoaren lanketa ikasgelan
 - ❖ Jolas dramatikoaren bidez ikasleek jasotako ikaskuntzak

❖ Hezkuntza Emozionalaren lanketa jolas dramatikoaren bidez

Txotxongiloak:

- Txotxongiloak Haur Hezkuntzako Gipuzkoako ikasgeletan
- Txotxongilo adituak
- Haur Hezkuntzako eskoletan txotxongiloak lantzeko ideiak eta gomendioak adituen hitzetan
- Diziplinartekotasuna txotxongiloetan
- Txotxongiloen bidez Haur Hezkuntzako ikasleek jaso ditzaketen ikaskuntzak
- Inklusio-prozesua Haur Hezkuntzako Gipuzkoako eskoletan txotxongiloen bidez
- Hezkuntza Emozionalaren lanketa txotxongiloen bidez
- Formakuntza txotxongiloen inguruan
- Gaur egungo txotxongiloen egoera EAEko eskoletan adituen arabera

4.4. PARTEHARTZAILEAK

Elkarriketak aurrera eramateko hezkuntza munduko zenbait profesionalek parte hartu dute lan honetan. Alde batetik, Lasarte-Oriako Landaberri-Garaikoetxea Ikastolako Haur Hezkuntzako 3 urteko gelako tutore bat (LasarteIrakaslea). Profesional honen parte hartzea hainbat arrazoi direla eta eskatu da. Practicum III-a burutu dudan ikasgelako tutorea da, eta harekin lanean aritu naizenez, bere egunerokotasuneko lana ezagutzeko aukera izan dut, eta bizitzen dituen egoeren berri izanda, interesgarria eta baliogarria iruditu zait bere partaidetza nire lana aurrera eramateko.

Beste alde batetik, Tolosako Herrikide ikastetxeko DBH 1. mailako ikasgela bateko irakasle-tutorearen (TolosaIrakaslea) partehatzea dago. Eskolan, irakaslearen DBH1eko ikasgelan, HH4ko ikasle eta irakasleekin batera aurrera eramaten ari diren proiektua oso interesgarria iruditu zait, txotxongiloen erabileraren inguruko ikuspegi berritzaile bat ekarri dezakeelako lan honetan.

Honez gain, bi adituen partehartzea ere lortu da. Tolosako Topic museoko pedagogia saileko lankideak (TolosaAditua) eta Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaileak (BilboAditua) lanari bestelako solidotasun bat eman diezaioketela pentsatzen dut, azken finean, profesionalak izanda, haien txotxongiloen inguruko jakintzak handiagoak baitira.

4.5. PROZESUA

Hasteko, Landaberri-Garaikoetxea Ikastolako 3 urteko gelan behaketa prozesua abian jarri da, behaketa-taularen laguntzaz jolas dramatikoaren eta txotxongiloen erabilera ikasgelan nolakoa den behatu eta honen bidez inklusioa eta hezkuntza emozionala lantzen diren ikusi da. Ondoren, behaketatik eskuratutako informazioaren analisia egin da. (ikus emaitzak)

Gero, behaketa-prozesua aurrera eramane den ikasgelako tutoreari (LasarteIrakaslea) elkarrizketa egin zaio, bere ikasgelan dagoen jolas dramatikoaren eta txotxongiloaren erabileraren inguruan, informazio gehiago jaso eta aldi berean behaketatik eskuratutako datuekin alderatzeko. Hau horrela, elkarrizketatik eskuratutako informazioaren analisia egin da. (ikus emaitzak). Honen ondoren, behaketa egin den ikasgelan aurrera eramateko eskuhartze baten diseinua egin da, segidan, aplikatu egin da.

Honen ondoren, Tolosako Herrikide Eskolako irakasleari (TolosaIrakaslea) elkarrizketa egin zaio. Gainera, Tolosako Topic Museoko langileari (TolosaAditua) eta Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaileari (Bilbo Aditua) elkarrizketa egin zaie. Jarraian, elkarrizketatik eskuratutako informazioaren analisia egin da. (ikus emaitzak)

5. ESKUHARTZEAREN PROPOSAMENA

HIRU TXERRIKUMEEN IPUINA	
Maila: HH3	Saioa: 1
Taldekatzea: Talde handian	Denbora: 25 min. inguru
Espazioa: Asanblada gunea	Materiala: Txotxongiloak eta emozioen txarteltxoak (irudia eranskinetan)
Saioaren helburua: Txotxongiloen lanketa. Ikasleen arreta, partehartzea, entzute aktiboa, zirrara lortzea. Hezkuntza emozionala lantzea: emozioen identifikazioa sustatzea.	
- Ikasleak asanblada gunean eseriko dira borobil erdi bat osatuz, irakasleari begira.	

- Irakasleak emozioen txarteltxoak erakutsiko ditu banaka, emozio bakoitza zein den azalduz. Ondoren, *Hiru txerrikumeak* ipuineko pertsonaiek ere emozioak dituztela azalduko du.
- Irakasleak aldez aurretik irakurketaren bidez eta antzerkiaren bidez landutako *Hiru Txerrikumeak* ipuina, txotxongiloen bidez aurkeztuko du.
- Irakasleak *Hiru txerrikumeak* ipuina txotxongiloekin dramatizatuko du:
 - Emozioen lanketa egiteko, pertsonaiak istorioaren une zehatz batzuetan nola sentitzen diren aipatuko du irakasleak, plastifikatuta izango dituen emozio ezberdinen txarteltxoak erakutsiz.
 - Ikasleen partehartzea sustatzeko, pertsonaia ezberdinen esaldiak (jada badakizkitenak) ahoz esatera animatuko zaie. Adib:

(Irakasleak) - *Txerritxo txikienak pentsatu zuen, nik...*

(Ikasleak) - *Lastozko etxea egingo dut!*
- Jada ipuina amaitzen denean irakasleak txerrikumeeak eta otsoak sentitu dituzten emozioen inguruan galdetuko die ikasleei. Adib.:

Noiz sentitu da otsoa haserre? (Haserre emozioaren txartela erakutsiz eta emozioa dramatizatuz) Zergatik zegoen haserre?
- Irakasleak emozioen inguruko hizketaldi bat sortuko du, ikasleei emozio horiek noiz sentitzen dituzten galdetuz. Irakasleak eguneroko egoera errazak non emozio horiek sentitzen ditugun jarri ditzake adibide bezala, laguntzeko.

(Ikus eranskinetan saioaren irudiak)

HIRU TXERRIKUMEEKIN JOLASTUZ	
Maila: HH3	Saioa: 2
Taldekatzea: Talde txikietan	Denbora: 20 min. inguru
Espazioa: Asanblada gunea	Materiala: Txotxongiloak

Saioaren helburua: Parte hartzearen eta entzuketa aktiboaren bidez inklusioa lantzea.

Ikasle guztiek txotxongiloen bidez ipuina kontatzeko aukera izango dute:

- Talde txikiak osatuko dira, eta ikasle bakoitzari pertsonaia bat esleituko zaio.
- Irakasleak ipuina gidatuko du. Ikasleek, txotxongiloen bidez, haien pertsonaien esaldiak esango dituzte tokatzen zaien unean.
- Gainontzeko ikasleek arretaz begiratu eta entzun beharko dituzte.
- Txandaka talde bakoitzak ipuina dramatizatuko du ikaskideen aurrean.
- Bukatzean, jolas libre garaian, txotxongiloak eskura izango dituzte libreki erabiltzeko.

(Ikus eranskinetan saioaren irudiak)

PERTSONAIEI BIZIA EMATEN

Maila: HH3

Saioa: 3

Taldekatzea: Talde handian

Denbora: 10 min. inguru

Espazioa: Asanblada gunea

Materiala: Txerrikume baten eta otsoaren maskara

Saioaren helburua: Jolas dramatikoaren bidez pertsonaia eta perspektiba ezberdinak lantzea, emozioak barne. Eta ikasleek ikaskideei arreta eskaintzea, imitatzeko gai izanez.

- Irakasleak aurreko egunean landutako emozioei erreferentzia eginez, Hiru Txerrikumeetako pertsonaiak ipuinean emozio horiek sentitu dituztela azaldu, adibideak jarritz.
- Irakasleak jolasa azalduko du: ikasleek tokatzen zaien maskararen arabera, irakasleak esaten duen ekintza egin beharko du. Adib.: *“otsoa zara, haserre zaude, eta atea jotzen ari zara”*. Ondoren, gainontzeko ikasleek imitatu egin beharko dute.
- Jolasa hasteko irakasleak adibide batzuk egingo ditu, eta ondoren txandaka ikasleei txerrikumearen edo otsoaren maskarak emango dizkie, ekintza bat eta emozio bat esanez.

Eskuhartze honen bidez, Haur Hezkuntzako curriculumeko hurrengo oinarrizko zehar-kompetentziak (Eusko Jaurlaritza, 2015) landu dira:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia: Ikasleak berdinen arteko eta irakaslearekiko komunikazioa landu dute, entzuten ikasiz eta elkarlanean lan egiten ikasiz.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: Pentsamendu ulerkorra garatu dute, ipuina ulertuz eta pertsonaien esaldiak buruz ikasiz.
- Elkarbizitzarako kompetentzia: Eskuhartze honetan hartu-emanak uneoro izan dira, talde osoa integratuz. Ikasleek norberaren sentimenduak eta pentsamenduak modu asertiboan adierazi dituzte eta, era berean, gainerako ikaskideen sentimenduak adi entzun dituzte.
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia: Emozioen identifikazioaren lanketa eginez, ikasleek norberaren sentimenduez jabetzeko gai izan dira. Horretaz gain, txotxongiloen eta jolas dramatikoaren bidez motibazioa, gorputzaren-funtzioak, autoestimua eta portaera soziala landu dituzte.

Beste alde batetik, oinarrizko kompetentzia espezifiko hauek landu dira:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia: Ikasleek emozioak eta bizipenak adierazi dituzte, haien burua gehiago ezagutuz. Honen bidez eta elkarlanaren bidez, haien ikaskideekin lotura eraikitzaileak ezarri dira. Bestalde, haien arteko komunikazioa eman da, bai txotxongiloen bidez, bai emozioen inguruko hizketaldietan. Hau guztia, literatura oinarri izanda.
- Kompetentzia sozial eta zibikoa: Haurrak, txotxongiloekin dramatizatzean elkarlanean aritu dira, ekimenez parte hartuz, eta ikaskideak entzunez eta errespetatuz.
- Arterako kompetentzia: Txotxongilo eta jolas dramatikoaren bidez kultura eta artea ezagutu, ulertu eta balioetsi ahal izan dute. Adierazpen-teknika ezberdinen bidez arte-trebetasunak eskuratu dituzte, irudimena eta fantasia elikatuz, abestiak, mugimenduak... landuz.
- Kompetentzia motorra: Haurrek dramatizazioaren bidez jarduera motor kontzientea landu dute, gorputza ezagutuz eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiliz. Hala, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak... erabili ditzute. Baliabide

horien bidez, ideiak eta emozioak adierazi dituzte, eta egokitasunez interpretatzen eta balioetsi dituzte gainerako ikaskideen adierazpenak.

Honetaz gain, hauek dira eskuhartzearen ebaluazio irizpideak:

- Arreta eta interesa: ikasleek bai ipuinaren kontaketa, bai jolas dramatikoan arreta mantentzen eta interesa adierazten duten.
- Parte-hartze aktiboa: ikasleek saioan aktiboki parte hartzen duten, bai irakasleak ipuina kontatzen ari denean, bai banaka txotxongiloekin zein jolasean dramatizatu behar dutenean.
- Ulermena: ikasleek ipuina eta bertan agertzen diren emozioak ulertzen dituzten.
- Enpatia eta pertsonaiekiko harremana: ikasleek ipuineko pertsonaiekiko enpatia erakusten duten edo emozionalki konektatzen duten, emozioen identifikazioa eginez.
- Errespetuzko parte-hartzea: ikasleek saioetan errespetuz parte hartzen duten, ikaskideen esku-hartzeak entzunez, hitz egiteko txandak errespetatuz eta narrazioan zein jolasean egoki jokatu.
- Informazioa barnertzea: ikasleek ipuinean aurkeztutako informazioa ulertzen eta barnertzen duten.

6. EMAITZAK

6.1. DIAGNOSIA: BEHAKETA -TAULAREN ETA ELKARRIZKETEN EMAITZAK

6.1.1. BEHAKETA TAULAREN EMAITZAK

- JOLAS DRAMATIKOA

Jolas dramatikoa irakasleak gidatua

1. KASUA: Ikasgelan proiektu txiki batekin aritu dira azken emaitza bezala *Hiru Txerrikumeak* ipuinaren antzezpena egitea zuena. Ikasleak ipuina behin eta berriro landu dute, pertsonaiak modu sinple eta erraz batean esaten dutena haiek erabakiz, eta ondorioz, esaldi hauek buruz ikasiz. Antzerkia egiteko orduan, jada ikasle guztiek bazekiten zer zen

haien pertsonaiak esan behar zuena eta narratzailea (irakaslea) kontatzen joaten zen ipuinaren zein uneetan hitz egin eta dramatizatu behar zuten.

- NOIZ? Ia egunero, goizeko asanblada eta gero (bi astez, gutxi gorabehera).
- IRAKASLEAREN HELBURUA:
 - Ikasle guztien partehartzea, lotsatienak barne.
 - Gorputz-adierazpena eta dramatizazioa lantzea.
 - Hizkuntza lantzea: hiztegia, esaldien osaketa, ahoskera, etab.
 - Arreta eta entzuketa-aktiboa lantzea, pazientzia eta onespenerekin batera.
 - Haurren gozamina.
- IKASLEEN PARTEHARTZEA:
 - Interes handiz partehartzen dute eta ondo pasatzen dute.
 - Denek partehartzen dute, pertsonaia aldaketak egonez, lotsatienei ere animatu egiten zaie, baina inoiz ez derrigortu.
 - Entzute aktiboa lantzen dute: ikaskideak antzezten ari direnean adi egoten dira eta isiltasuna mantentzen dute orokorrean.
 - Antzezten ari direnean orokorrean istorioaren haria jarraitzeko gai dira, tokatzen zaien unean hitz eginez eta dramatizatuz.

Gidatu-gabeko jolas dramatikoa

1. KASUA: Ikasleak haien jolas librean animalien eta pertsonaia ezberdinen (superheroiak, otsoa, zonbiak...) imitazioak egiten dituzte: batak bestea imitatzen du, harrapaketatik jolasten dira, elkarriketak izaten dituzte, istorioak sortzen dituzte...

- MATERIALA: Etxe txokoan kutxa bat dute zapiz, oihalez, arropaz... beteta. Libreki hartu ditzakete.
- ZER LANTZEN DUTE?
 - Komunikazioa eta adierazpena: hitzezkoa eta gorputzekoa.
 - Hizkuntzaren garapena: hiztegia, esaldien osaketa...
 - Haien arteko harremanak.
 - Irudimena eta sormena.
- IKASLEEN PARTEHARTZEA:
 - Ondo pasatzen dute.

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa erabiltzeko gai dira.
 - Batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago, baina orokorrean ikasle guztiek lantzen dute jolas dramatikoak.
 - Jolas-dramatiko gidatuan agertzen diren pertsonaiak imitatzeko joera agertzen dute.
 - Materiala askotan erabiltzen dute.
- TXOTXONGILOAK

Irakaslearen txotxongiloen erabilpena

1. KASUA: Irakasleak noizean behin poltsa magiko bat ateratzen du. Bertan era guztietako objektuak aurkitzen dira: soinua egiten dutenak, *yoyo* bat, baina, batez ere, panpintxoak. Panpin horien artean Pinto txotxongiloa dago, eskuan sartzeko dena, ahoa mugitzeko. Irakaslea banaka panpinak ateratzen joaten da eta normalean animatu egiten ditu ahotsa jarriz eta mugimenduak eginez, edota abesti bat kantatzen du. Pinto txotxongiloa ateratzen duenean haurrekin elkarrizketa txiki bat izaten du, egunerokotasuneko gaiez hitz eginez: zer moduz dauden, zer moduz dagoen bera (Pinto), etab. *Pinto-Pinto* kanta kantatzen du, eta lotara bueltatuko dela kontatzen die haurrei.

- NOIZ? Une puntaletan, noizean behin goizeko asanbladan.
- IRAKASLEAREN HELBURUA:
 - Entzuketa-aktiboa eta arreta lantzea.
 - Entzuketaren bidez hizkuntza lantzea: eguneroko esaldi sinpleak, esaldien osaketa, hiztegia, etab.
 - Isiltasuna lortzea.
 - Haurrak lilura edo fantasia une batean murgiltzea.
 - Entretenitzea eta ondo pasatzea.
- IKASLEEN PARTEHARTZEA:
 - Arreta handiz entzuten diote txotxongiloari, guztiz sartzen dira elkarrizketan.
 - Interesa erakusten dute, txotxongiloari erantzuten edota esaten duenari kasu egiten. Berarekin batera abesten dute.

2. KASUA: Ikasleek etxetik panpinak edo pelutxeak ekartzen dituztenean, irakasleak hauek animatu egiten ditu, txotxongilo moduan, elkarrizketa txiki bat sortzen du eta haurrak

agurtzen ditu lotara doazela esateko. Ondoren, sehaskatxo batean uzten ditu etxera joateko ordua iristen den arte.

- NOIZ? Ikasleek etxetik panpinak edo pelutxeak ekartzen dituztenean bakarrik.
- IRAKASLEAREN HELBURUA: Ikaslearen atxikimendu-objektua zaintzea. Horrela, objektua ekarri duen haurra lasai eta pozik gelditzen da. Alde batetik, ikaskide guztiei aurkezten zaielako bere objektu pertsonala, protagonismo bat emanik, eta bestetik, panpina gune seguru batean dagoela ziurtatzen duelako, eta gelatik ateratzen denean bueltan eramango duela jakinarazten zaiolako.
- IKASLEEN PARTEHARTZEA:
 - Arreta handiz entzuten diote txotxongiloari.
 - Interesa erakusten dute, txotxongiloari erantzuten diote eta bere sehaskara joateko erabakia errespetatzen dute.
 - Ikaskide baten objektu pertsonala dela errespetatzen dute, eta bertan uzten dute.

Ikasleen txotxongiloen erabilpena

1. KASUA: Haurrak batzuetan ikasgelan dituzten objektu ezberdinekin txotxongilo-jolasetan ibiltzen dira: pelutxezko panpinekin, egurrezko piezekin, plastikozko animaliekin... bakoitzak objektu bat hartzen du eta pertsonaiak irudikatzen dituzte. Modu honetan, elkarrizketan hasten dira bata bestearekin, eskuetan duten objektua edo panpina animatuz.

- NOIZ?
 - Jolas librean edo patio orduan.
- ZER LANTZEN DUTE?
 - Irudimena.
 - Dramatizazioa: panpina mugituz, ahotsak jarriz, etab.
 - Ahozko adierazpena eta hizkuntza: esaldien osaketa, hiztegia, ahoskera, etab.
 - Komunikazioa eta harremanak berdinekin.
- IKASLEEN PARTEHARTZEA:
 - Interes handiz jolasten dira, ondo pasatzen dute.
 - Entzute aktiboa dute: haien artean entzun eta zentzuz erantzuten dute.
 - Orokorrean binaka edo hiruak aritzen dira.

- INKLUSIOA

- NOLA LANTZEN DUTE?

Modu implizituan:

- Ikasle guztiek parte hartzen dute ekintzetan.
- Jarduerak edo ekintzak ikasle guztien beharrei egokituta daude.
- Ikasle guztiei entzun eta arreta ematen zaie, eta denen partehartzea bermatzen da
- Ikasleek elkarri entzuten diote.
- Irakasleak ikasle guztiak berdintzat tratatzen ditu.

Modu esplizituan:

- Arazo egoeren aurrean, esate baterako, ikasle bat jolas batean baztertzen denean, irakasleak ikasle baztertuaren partehartzea eta inklusioa bermatzen ditu ikasleekin elkarrizketa bat mantenduz.
- Irakasleak ikasleen harremanen inguruko elkarrizketak sortzen ditu beharrezko uneetan, baloreak irakatsiz: lagundu, errespetatu, denak jolastu, inor ez baztertu...

- HEZKUNTZA EMOZIONALA

- NOLA LANTZEN DUTE?

- Jolasaren bidez: Dado bat non emozioak agertzen diren. Adib.: “jarri aurpegi tristea”.
- Kantuen bidez, esate baterako, *Nik daukat etxetxo bat* kantua: unean erabakitzen den emozioaren bidez abestea eta dramatizatzea, eta aldatzen joatea. Adib.: “Orain haserre kantatuko dugu...”
- Ipuinen bidez.
- Implizituki:
 - Haien arteko liskarretan. Adib.: “nola sentitzen zara?”, “nola uste duzu sentitu dela zure ikaskidea?”, “triste dago hau egin duzulako”...
 - Irakasleak bere emozioak azalarazten ditu batzuetan. Adib.: “gaur pozik nago” edo “haserre nago hau egin duzulako”

- NOIZ?

- Goizeko asanbladan edo jolastokira atera aurreko uneetan lantzen dituzte ipuinak, kantuak, eta jolasak.
- Implizituki ia uneoro.

➤ **IRAKASLEAREN HELBURUAK:**

- Emozioen identifikazioa
- Liskarren konponketa, haien arteko harremanak eta talde kohesioa hobetzea.
- Emozioen erregulazioa, zergatik sentitzen diren horrela ulertzea.

6.1.2. ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Jolas dramatikoak Practicum III-ko ikasgelan

- **Irakaslearen aurkezpena**

LasarteIrakaslea, Lasarte-Oria herri gipuzkoarreko Landaberri-Garaikoetxea ikastetxe publikoko irakaslea da, duela bost urte jadanik. Gaur egun, Haur Hezkuntzako hiru urteko ikasgelan tutore-lanetan ibiltzen da. Eskola honetan, Haur Hezkuntzako etapan, ikasgelak txoko ezberdinetan banatuta daude, eta haurrak libreki mugitzen dira batetik bestera, hau horrela izanik, eskoletako ia denbora gehiena jolas librean oinarritzen da. LasarteIrakaslearen ustez, jolasaren bitartez dena irakastea eta ikastea posible da, hori dela eta, jolasari berebiziko garrantzia ematen dio *“niretzat jolasa oinarria da, garrantzitsuena da. Haurrentzako haien bizitza jolasa da, nire helburua jolasaren bitartez ikastea da. Gainera, haientzako helbururik gabeko zerbait da, naturalki ateratzen zaiena”* (LasarteIrakaslea)

- **Jolas dramatikoaren lanketa ikasgelan**

Jolas dramatikoaren lanketari dagokionez, LasarteIrakasleak dioenez, haurrek batez ere imitazio jolasen bidez lantzen dute, haien jolas librean *“besteen gorputzean jartzen dira, besteen buruan, eta beraiek bezala jokatzen dute”* (LasarteIrakaslea).

Bestalde, batzuetan jolas dramatiko gidatua ere lantzen dute, hain zuzen ere, ipuinen antzezpenen bidez. LasarteIrakasleak normalean haurrek gustuko dituzten ipuinak aukeratzen ditu, oso luzeak ez direnak, eta esaldi errepikakorrek dituztenak, eta haiekin adosten ditu pertsonaiek esan beharreko esaldiak. *“Izugarri gustatzen zaie. Niretzat oso aberasgarriak dira antzerkiak, eta oso ondo pasatzen dute”* (LasarteIrakaslea).

❖ Jolas dramatikoaren bidez ikasleek jasotako ikaskuntzak

Hori gutxi balitz, LasarteIrakasleak dioenez, jolas dramatikoaren bitarteko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua oso esanguratsua da, hurrek hainbat ikaskuntza jasotzen baitituzte. Alde batetik, sormenaren eta irudimenaren garapena aipatzen du, jolas dramatikoaren bidez, jolasteko, esploratzeko eta adierazteko modu ezberdinak topatzen dituztelako uneoro *“batean egiten dute modu batean eta hurrengoan ez dute berdin jokatzeko, tresna desberdinak erabiltzen dituzte, adibidez, otsoa ez da beti berdin. Batzuetan ibili egiten dira, besteetan korrika alde batera eta bestera... besteetan zenbait elementu ezberdin erabiltzen dituzte edo espazioa aldatzen dute.”* (LasarteIrakaslea). Beste alde batetik, ahozko komunikazioa eta hizkuntza lantzeko oso baliagarria dela dio, gainera, autoestimua eta konfiantza lantzeko ere garrantzitsua da, batez ere, ikasle lotsatienekin *“oso lotsatiak direnei askatasuna ematen badiezu azkenean esaldiak errepikatzen dituzte, eta honek haienganako konfidantza bat sortzen du”*. Azken finean, LasarteIrakaslearen ustez, nahiz eta gelan ahoz ez parte hartu, hizkuntza (esaldien osaketa, ahoskera, hiztegia) eta dramatizatzeko edo adierazteko moduak barneratzen dituzte *“dena barneratzen dute, beti ikasten dute zerbait. Gero ailegatzen dira etxera eta konfidantzazko giro batean egiteko gai dira”* (LasarteIrakaslea)

❖ Hezkuntza Emozionalaren lanketa jolas dramatikoaren bidez

LasarteIrakaslearen aburuz, ipuinen bidezko dramatizazioak egitean, antzerkian kasu honetan, hurrek barruan dituzte emozioak ateratzen dituzte modu inkontziente batean, askotan behar hori sentitzen dutelako, mugimenduaren bidez adierazten dute, esate baterako. *“Batzuk zergatik ibiltzen dira beti adibidez otsoarena egiten? Mugimendua behar dute, barruan daukaten ezinegon edo amorru hori ateratzeko modu bat da”*. (LasarteIrakaslea)

Bestalde, LasarteIrakasleari istorio txikiak kontatzea gustatzen zaio, hurrek, istorioan agertzen diren emozioak dramatizatzen joateko, adibidez.: *“Imajinatu komunera joaten garela eta dena urez beteta dagoela, nola jarriko gara? Haserre”*. Kasu honetan, ikasleek gorputzaren mugimenduaren eta ahotsaren bidez haserrea dramatizatu behar dute. Modu honetan ere, ikasgelako edo ikastetxeko arauak edota eguneroko usadioak irakasteko baliagarria da, LasarteIrakaslearen adibidearen kasuan, komuneko iturriekin ez dela jolastu behar ikasteko.

Txotxongiloak

- **Txotxongiloak Haur Hezkuntzako Gipuzkoako ikasgeletan**

Txotxongiloen erabilera Haur Hezkuntzako ikasgeletan aurrera nola eramán daitekeen jakiteko bi irakasleek haien esperientzien berri eman dute. Alde batetik, aurretik aipatutako LasarteIrakasleak, eta bestetik, Tolosa herri gipuzkoarreko Herrikide Eskolako TolosaIrakasleak.

Hasteko, Practicum IIIa burutu den ikasgelan, LasarteIrakasleak kontatu duenez, *poltsa magiko* bat du non panpin txiki ezberdinak gordetzen dituen, hiru edo lau txotxongilo ezberdinekin batera. Txotxongilo hauek normalean ikasleekin komunikatzeko erabiltzen ditu, batez ere, ikasturte hasieran, haurrak hasi berri direnean. Ikasle batzuk oso lotsati etortzen dira eta komunikatzea kostatzen zaie, kasu horietan, LasarteIrakasleak txotxongiloak erabiltzen ditu haiekin hitz egiteko “*txotxongiloarekin nolabaiteko gertutasuna sentitzen dute, eta gehiago askatzen dira*” (LasarteIrakaslea).

Besteetan, hiru urteko gelaren kasuan, LasarteIrakasleak pare bat txotxongilo hartzen ditu eta istoriotxoak asmatzen ditu. Lau edo bost urteko gelan, aldiz, beste modu batean egiten du, hain zuzen ere, istoriotxoa kontatzen hasten da eta denen artean osatzen joaten dira. Bere ustez, lau urtetik beherako ikasleekin zailagoa da txotxongiloen erabilera “*hiru urtekoekin oso murriztuta zaude, baina lau eta bostekin askoz gauza gehiago egin ditzakezu, bai antzerkian, bai txotxongiloekin Kasu honetan, batzuetan libreki uzten ditugu hor eta haiek egiten dute.*” (LasarteIrakaslea).

TolosaIrakaslea, LasarteIrakaslea ez bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako irakasle tutorea da. Kasu honetan, Haur Hezkuntzako lau urteko gelakoekin proiektu bat dute. Astean behin HH4ko ikasgela batera jaisten dira ordubetez, eta bertan txotxongiloen bidez bideratutako ekintza ezberdinak aurrera eramaten dituzte. Proiektua hastean TolosaIrakaslea eta bere DBHko ikasleen helburua txikienak txotxongiloak lantzea zen, baina ez edozein modutan, baizik eta maskota moduan gelan izanda “*gela bakoitzean txotxongilo maskota bat izatea nahi genuen: komunikazioa lantzeko, emozioak eta bideratzeko... Hori zen lehenengo*

helburua nolabait” (TolosaIrakaslea). Modu honetan, hiru txotxongilo ezberdin dituzte, eta hirurak, DBHko ikasleekin batera, HH4ko geletara sartzen dira.

TolosaIrakasleak dio txotxongiloak bitartekari lana egiteko erabiltzen dituztela *“txotxongiloak sartzen dira eta beraiek esaten dute zer egin, hau da, ikasleek txotxongiloen bidez hitz egiten diete umeei*” (TolosaIrakaslea). Batzuetan ipuinak kontatzen dizkiete, besteetan lantzen ari diren gaiarekin lotura eginez gertakariren bat kontatzen diete, etab. Txotxongiloak hasierako aurkezpena egin eta azalpenak eman ondoren, gelatik ateratzen dira eta DBHko gainontzeko ikasleak sartzen dira HHko ikasleekin batera adostutako ekintza elkarrekin aurrera eramateko.

Betiere, DBHko ikasleek prestatzen dituzten ekintza horiek HHko ikasleek lantzen ari diren Ulermen Proiektuaren gaiarekin zerikusia izaten dute *“haien Ulermen Proiektua zein den kontatzen digute, landuko dutena, eta guk horren arabera pentsatu behar ditugu gauzak*” (TolosaIrakaslea). Hain zuzen ere, Ulermen Proiektuetako bat Tolosa zuen gai nagusi bezala. DBHko ikasleek, haurrek txotxongiloekiko erakutsi zuten interesa ikusita, Topic Museoarekin zerikusia zuen lanketaren bat egitea bururatu zitzairen, kontuan hartuta museoa Tolosako erreferentzia bat dela. Gauzak horrela, DBHko ikasleak martxan jarri ziren eta ipuin ezberdinak prestatu zituzten txotxongilo sinpleekin, ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleei haien kabuz istoriotxoak sortzeko, txotxongilo batzuk egiteko aukera eman zieten, *“kartulinarekin egitea erabaki genuen, bat pintza batzuetara itsasteko eta bestea izozki makiltxo batera, sinpleak. Plantilak prestatu genituen eta haiengana jaitsi ginen*” (TolosaIrakaslea). Txotxongiloak DBHko ikasleekin batera sortu zituzten eta amaitzean haien artean istoriotxoak asmatzen hasi ziren talde txikietan *“asmoa da beraien artean egitea, elkarbizitza bat lortzea*” (TolosaIrakaslea). Honen ostean, Topic Museora txango bat egin zuten DBHko eta HHko ikasleak, eta bertan museoa ikusi eta tailerrean txotxongilo batzuk egin zituzten.

- **Txotxongilo adituak**

Topic Museoan TolosaAdituak hartu zituen Herrikideko ikasleak. TolosaAditua Topic Museoko Pedagogia Saileko langilea da. Haren hitzetan, museoaren helburua txotxongilaritza mundu mailan jartzea eta jendeari ezagutaraztea da, eta zehazkiago, Pedagogia Sailaren lana eskolekin harremana ezartzea da, txotxongiloen mundura gerturaratzeko eta haiekin

txotxongilolaritza lantzeko *“beti pentsatu izan dugu umeen zerbait dela, ondo pasatzeko eta kitto, baina guk irakasleek haien ikastetxeetan sartu dezaketen tresna oso baliotsua dela pentsatzen dugu.”* (TolosaAditua)

TolosaAdituak esaten duenez, eskola kanpaina antolatzeko, interesatuak dauden ikastetxeekin kontaktuan jartzen dira eta antzezlanaren arabera, ikasleen adina dela eta, zein egunetan joatea gomendatzen diete. Topic-eko bisitak hiru ekintza ezberdinetan banatuta daude: antzezlanara ikusi, museoa ikusi eta tailerra egin. Hala ere, TolosaAdituak esaten duenez, ikastetxe batzuk soilik museoa ikustera eta tailerra egitera joaten dira, *“pena da baina ikuskizunek geroz eta arrakasta gutxiago dute”* (TolosaAditua).

TolosaAditua eta Pedagogia Saileko lankideak museoko tailerretan egiten diren ekintzetaz arduratzen dira. Bertan, haurrek haien txotxongiloak egiten dituzte, TolosaAdituak kontatzen duenez, adinaren arabera moldatzen dituzte txotxongiloak sortzeko teknikak *“tresna bat ematen diegu (txotxongiloa) gero beraiek gelan lantzeko aukera izateko”* (TolosaAditua). Ondoren, behin txotxongiloa sortu dutela, zenbait dinamika aurrera eramaten dituzte, esate baterako, ahotsaren lanketa, mugimenduaren lanketa, etab. *“adibidez, beldurra badaukazu ahotsa nola izango litzateke? eta mugimendua? Beti bi edo hiru mugimendu edo erakusten dizkiegu”* (TolosaAditua)

Bestalde, urtean behin Titirijai Txotxongilo Jaialdia antolatzen dute. Jaialdia duela 40 urte hasi zen martxan, arraskasta handia zuela ikustean, jaialdiari etxe bat ematea erabaki zuten: Topic Museoa. Ondoren, eskola kanpaina guztia jaio zen. Hasiera batean ikasleak soilik ikuskizunak ikustera joaten ziren, baina ondoren museoa eta tailerrak martxan jartzea erabaki zuten bertako adituek *“pentsatu zuten: agian txotxongiloak sustatzeko modu politagoa eta eraginkorragoa da. Bestela ikuskizuna ikusten dute, ondo pasatzen dute... eta etxera joaten dira, eta horrela etortzen dira eta beste ibilbide aberasgarriago bat daukate”* (TolosaAditua).

Tolosako Titirijai Jaialdia bezala, Bizkaian, Bilbon hain zuzen ere, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia antolatzen da. BilboAditua jaialdi honetako laguntzaileetako bat da. BilboAditua izatez, ikasketaz, irakaslea da, kontatzen duenez, duela urte batzuk ikastola batean lanean zegoela, txotxongilo ikastaro batean Toti Martínez de Lezea ezagutu zuen. Idazleak une hartan txotxongilo antzerki talde bat zuzentzen zuen, eta BilboAdituak azaltzen

du nola berak txotxongilo munduan bete-betean sartu zuen. Geroztik, urte luzez aritu da txotxongilo munduan lan egiten, zehazki, Kukubiltxo antzerki taldean.

BilboAdituak dioenez, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren (TXFest) helburu nagusia *“nazioartean dauden lan erreferentzial batzuk ikustaraztea eta hemengo ikuslegoarekin partekatzea da, haien gozamenerako”* (BilboAditua). Honetaz gain, haientzako garrantzitsua da Euskal Herriko txotxongilo taldeen presentzia beti egotea. Gainera, nazioarteko irakasleekin ere formakuntzak antolatzen dituzte eta lan kolaboratiboa lortzen dute. BilboAdituak azaltzen duen moduan, ikuskizun batzuk publiko zabalerako dira, eta beste batzuk eskola kanpainaren barnean antolatzen dira, adin ezberdinetako ikasleentzako. Konpainiei galdetzen diete ea zein adin tarterako dituzten ikuskizunak, eta horren arabera antolatzen dituzte ikastetxeen bisitak *“horretan zehatzak izaten saiatzen gara, eta errespetatzen taldeak markatzen duen kriterioa”* (BilboAditua)

Hala eta guztiz ere, BilboAdituak aipatzen du, Topic-en ez bezala., haiek normalean ez dutela ikuskizunen ondorengo tailerrik edo dinamikarik antolatzen, eskolaren araberrako zerbait izaten dela dio, hau da, eskolak ekintzaren bat prestatu badu, haiekin batera aurrera eramaten dute, baina bestela ez. *“Haiek izaten dute haien fitxa pedagogikoa ondoren eskolan lantzeko eta eskolak antolatzen badu saiotxo bat egiten da ikuskizuna bukatzean, baina guk talde programatzaile bezala ez dugu bideratzen, antolatuta badago bai egiten dugula, bestela ez”*. Antolatzaileak aldiz, garrantzi handiagoa ematen dio ikuskizunetan lantzen diren gaiari, esate baterako, berdintasuna, ingurumena, etab. *“badaude gai batzuk oso pilpilean gure gizartean, eta uste dugu ikuskizunen bidez hori bideratzea oso garrantzitsua dela, ikasleek barneratu ahal izateko”* (BilboAditua). TolosaAdituak ere ideia hau defendatzen du, haiek adibidez, birziklapenaren gaia asko lantzen dute hurrekin *“horrekin ere ikasten da, botila asko dauzkagu, zer egingo dugu guzti honekin?”* (TolosaAditua)

Urtero elkarte ezberdinekin kolaboratzen dute, urtero ezartzen duten “gaiaren” edo BilboAdituak esaten duen bezala, lortu nahi duten nortasunaren arabera. Duela bi urte esate baterako, Hari Morea elkartearekin aritu ziren lanean, emakumearen gailentzea eta feminismoa sustatzeko asmoz. Aurten, Pagoa elkartearekin ari dira lanean. Pagoa elkarte txotxongilorarritza susatzen duen elkarte da, haien Bilboko zentroan aretoak eta formakuntza eskaintzen dituzte.

- **Haur Hezkuntzako eskoletan txotxongiloak lantzeko ideiak eta gomendioak adituaren hitzetan**

BilboAdituaren ustetan, txotxongiloekin lanean hasteko lehenengo pausoa panpinekin jolastea da txotxongiloak izatez panpinak baitira *“harekin jolastu daitezke, hitz egin, zaindu... hor egongo bailitzake txotxongiloaren oinarria”* (BilboAditua). Bestalde, Haur Hezkuntzako lehenengo urteetan, irakasleek galtzerdizko txotxongiloa erabili dezaketela dio, eskuan sartzerakoan pertsonaiari nortasun bat emango diotela ikusiko dutela dio: ahots bat jarriko diote, keinu batzuk, erraz ateratzen baita.

TolosaAditua ere bat dator ideia honekin, bere ustez ere, txotxongilo gomendagarrienak galtzerdikoak dira, kontuan hartzen badugu uneren batean ikasleek erabili behar dituztela, disoziazioa eta mugimendua lantzeko askoz ere errazagoak direlako, beste batzuekin alderatuta, esate baterako, sokazkoekin alderatuz, *“niri adibidez sokazkoa asko gustatzen zait, baina ni nago hemen eta txotxongiloa hor, orduan mugimendua ematea eta disoziazio lantzea oso zaila da, hemen daukazunean (eskuan) goxoagoa da, sentitu egiten duzu, eta nire ustez errazagoa da”* (TolosaAditua)

Honetaz gain, TolosaAdituak txotxongiloa irakaslearentzako tresna bezala erabiliko luke, asanbladan sortzen diren elkarrizketetan erabiltzeko, edo gai zehatz baten inguruan hitz egiterako orduan *“irakasleak esatea: lagun berri bat dator gu ikustera, eta gauza batzuk kontatuko dizkigu... Eta irakasleak komentatzea nahi duen gai hori... Nik horrela sartuko nuke ikasgelan, agian ez egunero, baina asteen behin behintzat bai”* (TolosaAditua). Honetaz aparte, eguneroko usadioak sortzeko edota ikasgelako errutina ezberdinak lantzeko ere erabili daitezke *“txotxongiloa ateratzen du eta... goazen jartzera eguneko data... edo gauza errutinarioak egiteko nik uste dut tresna polita dela”* (TolosaAditua).

Hori gutxi balitz, irakasleek txotxongiloa animatzerakoan ahotsa eta mugimendua kontutan hartu behar dute, baina batez ere arnasketa eta begirada *“txotxongiloak begiratu egin behar gaitu, eta ikasle guztiak begiratu behar ditu, eta arnasketa eman. Beti hartzen dugu kontuan mugimendua eta ahotsa, baina esate baterako, zu hitz egiten zaudenean, bera ere zerbait egiten egongo da, edo besteak ikusten”* (TolosaAditua) laburbilduz, txotxongiloari bizia eman behar zaio.

Lau eta sei urte bitarteko ikasleei dagokienez, jada haien txotxongiloak egiten hasi daitezkeela pentsatzen du BilboAdituak, oinarrizko teknika batzuekin. Jada eskuetan dutenean pertsonaia bat sortuko dute eta hor hasiko dira antzerkiaren oinarria jasotzen.

Hain zuzen ere, TolosaAdituak dio, Topic-eko tailerrean Haur Hezkuntzako ikasleak gai direla haien txotxongiloak egiteko, oso modu sinplean, baina egiten dituzte. *“Askotan hemen HHkoekin egiten duguna izaten da makil bati kartulinazko pertsonaia bat itsatsi eta kitto”* (TolosaAditua). Behin hurrek txotxongiloa sortu dutela, hauen aurkezpena egiten dute, TolosaAdituaren galdera batzuen laguntzaz *“oso galdera errazak egiten ditugu: zer gustatzen zaio, zer ez, zenbat lagun dauzkan... Horrekin saiatzen gara haien ahoskatzea, adierazkortasuna... lantzea eta ondo pasatzea”*. (TolosaAditua)

Ondoren, ariketa batzuk egiten dituzte hurrek txotxongiloari bizia ematen ikasteko. TolosaAdituak gomendatzen du lehenik ariketa txotxongilorik gabe egitea, mugimendu batzuk, ahots batzuk... egitea, dramatizatuz, eta ondoren txotxongiloa hartzea, baina oraingoan haurrak egindako ariketa txotxongiloak errepikatu beharko du. *“Gure dinamika pixka bat hortik dijoa, azkenean da biziartzea, nahiz eta arkatz bat izan. Nire ustez ez da mugitzea, bizia hartzea da”* (TolosaAditua)

Honetaz gain, txotxongiloari bizitza emateko ipuinak erabiltzea gomendatzen du BilboAdituak *“irakasleak ipuin bat aukeratu eta gidatu dezake”* (BilboAditua), betiere, haurren interesak kontuan hartuta. TolosaAditua ere bat dator gomendio honekin: *“ipuinak zein irakurketa ezberdin dauzkan ikusi, segun eta zein ipuin egiten duzun oso interesgarria izan daiteke”* (TolosaAditua). Gainera, BilboAdituak gehitzen du ipuin edo istorio gehienak oinarri oinarrian konfliktu batetik hasten direla, beraz, gelako arazo egoerak lantzeko ere erabilgarria izan daitezkeela.

- **Diziplinartekotasuna txotxongiloetan**

Gainera, LasarteIrakaslea eta BilboAditua bat datoz txotxongiloak tresna diziplinarteko bat bezala erabili daitezkeela esaterakoan. LasarteIrakaslearen hitzetan, harentzat haurrentzako erakargarria edo haien gustokoa den guztia material interdisziplinari bihurtzen da, eta txotxongiloaren kasuan hala da. *“Adibidez bloke logikoa landu dezakezu, esate baterako, txotxongiloaren bitartez esan diezakezu: goazen dorre bat egitera, zenbat pisu ditu? bat, bi,*

hiru... eta zein kolore? gorria, berdea, urdina...” (LasarteIrakaslea) hain zuzen ere, hurrek *“txotxongiloak hitz egiten diela sinisten dute, eta jolasa bilakatzen da”* (LasarteIrakaslea). Borobilduz, BilboAdituak esaten duen bezala, *“Txotxongiloen lanketa ez da soilik arlo bat, baizik eta honen bidez, zeharka, hezkuntzaren arlo guztiak aztertu daitezkeela, orduan oso tresna baliagarria bilakatzen da”* (BilboAditua).

- **Txotxongiloen bidez Haur Hezkuntzako ikasleek jaso ditzaketen ikaskuntzak**

TolosaIrakasleak dio bere ustez hurrek funtzio exekutiboak lantzen dituztela: *“ikaskideei entzuten, hitz egitea noiz tokatzen zaien jakitea, ikaskideekin malgutasuna izaten ikasten: agian nik guau guau esan nahi dut eta ondoko ikaskideak esaten du, orduan nik miau miau esan beharko dut”* (TolosaIrakaslea).

Bestalde, LasarteIrakasleak dioenez, haurren komunikatzeko eta adierazteko gaitasuna hobetzen da txotxongiloen bidez, esate baterako, oso lotsatiak diren haurren kasuan, edota beste ikaskideekin harremanak izatea kostatzen zaienen kasuan: *“beraiek ez dira gai, ez dira ausartzen, baina agian txotxongiloak indarra ematen die, atzean, izkutuan bezala gelditzen baitira”* (LasarteIrakaslea). BilboAditua bat dator ideia honekin: *“kasu askotan txotxongiloa ematen diozu eta gai izango da barruan daukan hori txotxongiloaren bidez ateratzeko, azken finean, beste aukera bat ematen diozu”* (BilboAditua). TolosaAditua ere bat dator honekin, bere hitzetan *“nire ustez garrantzitsua da espresibitatea, gehienbat lotsatiak direnean asko laguntzen du, batez ere oso txikiak direnean eta hitz egitea kostatzen bazaie”* (TolosaAditua).

Gainera, TolosaAdituak gehitzen du ikastetxe asko Topic Museora joaten direla euskara lantzeko eta sustatzeko asmoz *“interesgarria da ze batzuetan hurrek pentsatzen dute euskaraz hitz egiten ez dakitela eta lotsa ematen die, baina txotxongiloa hartzen dutenean, txotxongiloak euskaraz hitz egiten du”* (TolosaAditua).

Hau ikusita, TolosaAdituak dio txotxongiloen erabilpenak funtzio ludiko hain indartsua duela, ikasleak guztiz inkontzienteki sartzen direla txotxongiloak eskaintzen duen fantasia horretan, eta ondorioz, haien partehartzea askoz ere handiagoa dela: *“baliteke, zuri, irakaslearen paperean, ezer ez adieraztea, baina txotxongiloari agian esango dio. Jolas bezala egiten duzunean, sartu egiten dira, bi aldiz pentsatu gabe, eta orduan gehiago irekitzen dira, gehiago parte hartzen dute”* (TolosaAditua)

Azken finean, TolosaIrakasleak esaten duen moduan, *“garrantzitsuena da ikaskuntza guzti horiek modu ludiko batean lantzen eta barneratzen dituztela, haiek konturatu gabe, inkontzienteki eta ondo pasatuz.”* (TolosaIrakaslea).

Hori gutxi balitz, BilboAdituak dioenez, txotxongiloak oso baliagarriak dira gizartean pil-pilean dauden gai batzuk lantzeko: berdintasuna, ingurumenaren zaintza... edota hurrei irakatsi nahi dizkiegun baloreak lantzeko *“txotxongiloak oso aberasgarriak dira esparru guztiak ikusteko eta lantzeko, fantasia mundu batetik eramaten zaituztelako errealitatearen baloreak aztertzeraz”* (BilboAditua).

Honetaz gain, BilboAdituak azpimarratzen du taldea kohesionatzeko, elkarlana lantzeko eta haien arteko harremanak estutzeko ere oso tresna esanguratsua dela *“ikasleek beste harreman maila bat lortzen dute eta gero honek zerikusia izango du eurek normaltasunean izango duten harremanekin”* (BilboAditua). Gainera, BilboAdituak dio ikasgelan baztertuago dituzten ikasleak egotekotan, askoz ere erraztasun gehiago daukatela talde zabalean sartzeko, azken finean, elkarlanean aritu behar baitira uneoro. Hala, bere ustez, lidergo batzuk ere moteldu edo apaldu daitezke *“antzezpenetan azken finean, irakasleak lidergoa liderra ez denari eman diezaioke, edo normalean isilagoa edo baztertuago dagoen ikasle bati”* (BilboAditua)

- **Inklusio-prozesua Haur Hezkuntzako Gipuzkoako eskoletan txotxongiloen bidez**

Ildo beretik jarraituz, gorago aipatu den bezala, txotxongiloak ikasgelako taldea sendotzeko eta ikasleen arteko harremanak lantzeko oso aberasgarriak izan daitezke, hau horrela izanik ikasgelako inklusio-prozesuan ere lagundu dezaketela esan daiteke. LasarteIrakaslearentzat inklusioa haur guztiak gela berdinean egotean datza *“berdin du nongoak diren, zein ezaugarri dituzten, besteekin ohitu egin behar dira, niretzat oso garrantzitsua da denak elkarrekin egotea”* (LasarteIrakaslea). Behar bereziak dituzten hurrek jaso behar dituzten laguntzei dagokienez ere, gela arruntaren barruan jasotzekoaren alde agertzen da, *“horrela ikasleek ere errazago onartuko dituzte haien arteko desberdintasunak, parekide bezala ikusiko dute elkar: batzuk altuak, beste batzuk baxuak, beste batzuk ilehoriak... niretzat hori da inklusioa”* (LasarteIrakaslea). Gainera, bere ustez garrantzitsua da irakasleak ikasle guztiekin jokabide berdina izatea, eta ezberdintasunak naturaltasunez tratatzea, haurrentzako eredu izanik *“nik*

uste dut naturalki egin behar dela, ez dituzu bereiztu behar, bestela haiek ere konturatzen dira. Garrantzitsua da txikitatik eredu hori jasotzea eskoletan” (LasarteIrakaslea)

Tolosako Herrikide Eskolan ere, TolosaIrakasleak baieztatzen duen moduan, inklusioa aurrera eramaten da. Hain zuzen ere, HHra jaisten diren DBHko ikasleekin inklusioa landu zuen proiektua hasi aurretik *“oso aberatsa da beraientzat ikustea badirela beste modu batzuk pentsatzeko, beste modu batzuk esateko... Proiektu honen bidez hau guztia lantzen dute, errealitate guztiak ikusten dituztelako” (TolosaIrakaslea)*

TolosaIrakasleak kontatzen du zein esaguratsua izan den txotxongiloekin proiektua aurrera eramatea behar bereziak dituzten hurrekin. Kontatzen duenez, HHko ikasgeletan autismoa daukaten haurrak daude eta haiekin erraztasun handiagoz komunikatzea lortu dute txotxongiloek esker *“niri kasu egiten didate soilik txotxongiloa baldin badaukat. Eta txotxongiloek begiratzen diete, eta gauzak kontatzen dizkiete: gertatutako gauzak eta haserreak eta... ez die besteei kontatzen” (TolosaAditua)*. LasarteIrakasleak gehitzen du irakaslea behar bereziak dituzten hurrekin komunikatzeaz gain, ikasle hauen berezko hitz egiteko tresna bezala erabiltzea ere lagungarria izan daitekeela *“behar bereziak dituzten hurrek erraztasun handiagoa aurkitzen dute txotxongiloetan sentitzen dutena adierazteko, esatera ausartzen dira eta tresna bezala erabiltzen dituzte” (LasarteIrakaslea)*.

Bestalde, TolosaIrakasleak proiektu honetatik kanpo txotxongiloekin izandako esperientzia bat ere kontatzen du *“nik izan ditut ikasleak totalka hitz egiten zutenak eta txotxongiloa hartzean, txotxongiloak ez zuen totalka hitz egiten. Eta gero ikasleari galdetzea: konturatu zara? Eta bera ez da konturatzen. Orduan nire ustez txotxongiloek badaukate zerbait, zerbait magikoa: ez dakit zer, baina badaukate” (TolosaIrakaslea)*.

- **Hezkuntza Emozionalaren lanketa txotxongiloen bidez**

Komunikazioarekin jarraituz, TolosaIrakasleak dio konturatu direla, emozio aldetik ere, ikasleek errazago adierazten dizkiotela txotxongiloari irakasleari baino, haiekin identifikatzeko gai direlako. Irakasleak gogoratzen du nola HHra joaten diren egunetako batean txotxongiloek ipuin bat kontatu zieten non emozio batzuk agertzen ziren, eta ondoren galdetu zieten ea noizbait horrela sentitu ziren, etab. *“eta ikasleak hasten ziren ba ni bai, nire*

aitak ezdakit zer esan zidan... sortzen da horrelako elkarrizketa eta giro natural bat... eta oso oso aberatsa da” (TolosaIrakaslea).

Horretaz gain, emozioen identifikazioa lantzeko ere erabili daitezke, LasarteIrakasleak dioenez, haurrak txotxongiloak dituztela haien barneko sentimenduak atera ditzakete *“beharbada ez dira gai haiek sentitzen dutena adierazteko, baina panpina bai, panpina triste dago. Ni nago triste baina agian ez naiz ausartzen. Panpinaren bitartez haien emozioak identifikatzen dituzte”* (LasarteIrakaslea). TolosaAditua ere ados dago ideia honekin, *“normalean txotxongiloekin daudenean haien Nia irudikatzen dute: nola sentitzen den, norekin bizi den, zer izan nahi duen... askotan pistak ematen dizkigute. Umeak hobeto ezagutzeko altxor bat izaten da”* (TolosaAditua).

Hortaz aparte, LasarteIrakasleak dio autoestimua lantzeko ere oso lagungarriak izan daitezkeela. Adibidez, txotxongilo antzezlan bat egitean, haur gehienak deshinibitu egiten dira, modu natural eta espontaneo batean adieraztea lortuz *“batzuk hasiera batean ez dira ausartzen, baina jada paper batean jartzen direla eta identifikatuta sentitzen direla, askatu egiten dira, eta egoera normal batean egiten ez dutena agian egiten dute. Imaginatu ume bat oso lotsatia dena, autoestimua oso baxua, otsoaren txotxongiloa ematen diozu eta hazi egiten da eta ondo sentitzen da.”* (LasarteIrakaslea).

- **Formakuntza txotxongiloen inguruan**

Formakuntzari dagokionez, LasarteIrakasleak ez du formakuntza zehatzik jaso dramatizazioaren edo txotxongiloen inguruan baina Amara Berri eskolan urte askoz lan egin zuela kontatzen du eta bertan antzerki txokoa zutela. Urte haietan dramatizazioaren inguruan asko ikasi zuela dio *“gauza asko egiten genituen, orduan hor hornitu nintzen eta konturatu nintzen zein garrantzitsua den”* (LasarteIrakaslea). Bestela, bere kabuz ikasten du, irakurtzen etab.

TolosaIrakasleak Topic-eko zenbait formakuntza jaso ditu eta askotan ikuskizunetara joaten da. Gainera, Topic-eko kideekin oso harreman estua du eta Herrikide Eskolako proiektua aurrera eramateko askotan bisitan joaten da ideiak hartzeko, gomendioak jasotzeko... Bere ustez, elkarlanean aritzea eta ikasteko interesa izatea da garrantzitsuena irakasle bezala prestakuntza on bat izateko. *“Nik uste dut talde bat behar dela, irakasle batek ezin du dena*

egin eta ezin du guztian formatuta egon. Talde bat baduzu atzetik eta zuk horrelako sentsibilitatea baduzu errazagoa egiten zaizu besteei galdetzea eta abar, baina zure konfort-zonan gelditzen bazara orduan... baina hori txotxongiloekin eta edozein gauzarekin.” (TolosaIrakaslea)

- **Gaur egungo txotxongiloen egoera EAEko eskoletan adituaren arabera**

Bilboko adituaren iritziz txotxongiloen egoera EAEko eskoletan nahiko kaskarra da “*esango nuke orokorrean ez dela existitzen, ez dituzte... Badaude zentro batzuk non esperientzia oso puntualak dituzten, baina oso apala da, ez du inzidentziarik. Eta nire ustez curriculumean derrigorrezko gauza bat izan beharko litzateke.*” (BilboAditua).

TolosaAditua bat dator ideia honekin, baina pixka bat optimistago agertzen da: “*dena zeharka, ezagutzen ditudan irakasleak zeharka erabiltzen dituzte, agian oso helburu konkretu bat egiteko, eta laguntza bezala. Aldiz, lehen ez ziren erabiltzen orduan horregatik esaten dizut pixkanaka eskoletara iristen ari dela, egoera hobetuz, eta hori oso interesgarria dela iruditzen zait*”. (TolosaAditua). Adituak gehitzen du: “*baina bueno, azken finean gurea ere irakasleak eta etorkizuneko irakasleak motibatzea da, jo ba jarraitu honekin*” (TolosaAditua).

6.1.3. DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

Diagnosia borobiltzen hasi ahal izateko, behaketa-taularen eta elkarrizketen emaitzen ondorioak aterako dira. Hasteko, jolas dramatikoaren inguruko ondorioei dagokienez, Garaikoetxea-Landaberriko HH3ko ikasgelan betetako behaketa-taulan eta ikasgelako LasarteIrakasleak elkarrizketan emandako erantzunetan fokoa jarri da. Argi ikusi da ikasgelan jolas dramatikoa lantzen dela, bai irakasleak gidatua, bai gidatu gabea, haurren jolas librean.

Behaketa-taulan eta LasarteIrakaslearen erantzunetan ikusi ahal izan denez, jolas dramatiko gidatua ipuinen antzezpenen bidez aurrera eramaten dute. Hala ere, zalantza bat sortzen da hemen, ez delako argi gelditzen lantzen dutena jolas dramatikoa edo antzerkia den. Alde batetik, antzerki bezala hartu dezakegu, antzerkiaren helburu nagusietako bat betetzen delako, hain zuzen ere, Kiessling-ek (2015) azaltzen duen moduan, eszenaratzean arreta osoa jartzen da, publikoarentzat azken emaitza on bat bilatuz, hau, errepikapenen bidez lortzen da, eta

ikasgelan, hau jarraitu dela esan daiteke, egunero egin baitituzte antzezpenaren entseguak. Aldiz, helburu guztiz ludikoa izateaz gain, jolas dramatikoaren alderdi askeago hori ere badu, hain zuzen ere, antzerkian pertsonaien rolak oso ondo finkatuta daude, berriz, jolas dramatikoan ez eta ikasgelan ez zeuden pertsonai edo rol finkoak ikasle bakoitzarentzako, baizik eta, rolak aldatzen joaten ziren, ikasle guztiek ikuskizunean parte hartuz, ikusle bezala zeuden ikasleak barne.

Hau horrela izanik, jolas dramatiko gidatua lantzen dela esan daiteke, baina kasu honetan, behaketa-taularen bidez baieztatu ahal izan denez, aurrera eramandako dramatizazio gidatua proiektu baten barnean izan da, hau da, denbora tarte motz batean aurrera eraman dena. Aldiz, proiektu hontatik kanpo ia hiru hilabeteetan ezin izan da jolas dramatiko gidatu gehiagorik behatu. Hala ere, LasarteIrakasleak jolas dramatiko gehiena ez-gidatua izaten dela baieztatzen du, haurrek haien jolas librean lantzen dutena, hain zuzen ere, gorago Chalmers-ek (2010) baieztatzen duen bezala, haurrek, naturalki, antzezpena jotzen baitute, beren jokoetan eszenak eta pertsonaiak antzeztuz. Hau ere, eskura duten materialari esker izan daitekeela ondorioztatu daiteke. Behaketa-taulan ikusi daitekeen moduan, kutxa bat dute non era guztietako arropak, oihalak, zapiak, aurkitu ditzaketen. Haurrek material hauek askotan erabiltzen dituzte jolas dramatikoa aurrera eramateko, beraz, jolas dramatikoa areagotzen duten eta jolas mota hau egitera gonbidatzen duten material esanguratsuak direla ondorioztatu daiteke. Berdin gertatu daiteke txotxongiloekin, haurrek eskura izango balituzkete, ziurrena, haien jolas librean erabiliko lituzkete.

Gainera, askotan, behaketa-taulan ikusi eta LasarteIrakasleak baieztatu duenez, jolas dramatiko librean, jolas dramatiko gidatuan egiten dituzten ipuinetako pertsonaiak (otsoa, adibidez) imitatzeke eta bertan ikasten dituzten dialogoak dramatizatzeke joera dute, beraz, jolas gidatu hauek, ikasleengan eragina dutela ondorioztatu daiteke, eta honi esker, haien kabuz dramatizatzeke grina handitzen dela. Hau ikusita, ondorioztatu daiteke, jolas dramatiko gidatua ikasgelan gehiago eta modu anitzagoetan landuko balitz, ikasleek ere, haien jolas librean aukera handiagoak izango lituzketela jolas dramatikoa aurrera eramateko. Hau da, jolas dramatiko gidatua gehiago lantzen bada, jolas dramatiko librea bikoiztu egingo da, eta ez soilik kantitateari begira, baizik eta modu askoz ere aberasgarriagoan. Hau horrela izanik, jolas librea eta gidatu-gabea dela kontuan hartuta, haurrek ere haien autonomia, berdinen arteko komunikazioa eta berezkoa duten sormena garatzeko aukera gehiago izango dituzte.

Bestalde, Motos-ek (2009) gorago aipatu duen moduan, dramatizazioaren bidez hurrek gaitasun komunikatiboak eta adierazgarriak, eta trebetasun sozialak garatzen dituztela baieztatu da. Hain zuzen ere, ikasgelako jolas dramatikoaren bidez ikasle guztien partehartzea hobetzen dela ikusi da, eta honekin batera, haien komunikazioan eta adierazpen gaitasunean onurak ere behatu dira. Izan ere, LasarteIrakasleak esan duen moduan, lotsa duten ikasleek edo normalean partehartzea gehiago kostatzen zaien ikasleek ere partehartzen dute orokorrean. Horrela ere, ikasle hauek hizkuntzaren lanketa aurrera eramateko aukera dute, dialogoaren bidez esaldien osaketa, hiztegia, eta ahoskera lantzen baitituzte. Gainera, LasarteIrakasleak haren kabuz baieztatu ahal izan du, nahiz eta ikasle lotsatienek ez parte hartu nahi, ikaskuntza guztiak barneratzen dituztela, soilik haien ikaskideei behatuz. Hau horrela izanik, kasu honetan elkarlana eta talde handian lan egitea zein aberasgarria izan daitekeen ikusi daiteke.

Txotxongiloei dagokienez, Lasarte-Oriako behaketaz eta LasarteIrakaslearen elkarrizketaz gain, Tolosako Herrikide eskolan zer nolako egoera duten ere jakin ahal izan da. Txotxongiloak bi eskoletako ikasgela zehatzetan lantzen direla esan daiteke, baina oso modu ezberdinetan. Hasteko, Lasarteko eskolan behatu ahal izan den bezala, eta LasarteIrakasleak baieztatu duen bezala, une puntualetan, asanblada uneetan, irakasleak zenbait txotxongilo ateratzen ditu ikasleekin elkarrizketa motz batzuk mantentzeko, egunerokotasuneko galderak eginez (zer moduz dauden, eta antzekoak).

Bestalde, LasarteIrakasleak azaldu duena da ikasturte hasierako ikasleen egokitzapen prozesu horretan txotxongiloak oso erabilgarriak izaten direla, ikasleak erraztasun handiagoz komunikatzen baitira irakaslearekin. TolosaAdituak eta BilboAdituak argi utzi dute ikasleek txotxongiloekin bestelako gertutasuna sentitzen dutela, irakasleari komunikatzeko gai ez direna, txotxongiloari komunikatzeko gai izanik. Mesas-ek (2019), hau baieztatzen du esanez, txotxongiloek hurrek beren ingurunearekin duten elkarreaginean laguntzen dutela, mezu positiboak transmititzea eta printzipio etikoak irakastea ahalbidetzen dutelako, eta horrek harreman afektiboak errazten dituelako. Antzeko fenomeno bat gertatzen da Lasarteko ikasgelako hurrek etxetik panpinak ekartzen dituztenean, azken finean, atxikimendu objektuak dira haienzako, gertutasun hori sentitzen dute. LasarteIrakasleak hau jakinda, panpinak txotxongilo bihurtzea erabakitzen du, hauek animatuz, eta ondorioz, haurrak lasaituz.

TolosaIrakasleak kontatzen duen moduan, HHko ikasgeletan berdin gertatzen da. Kasu honetan, DBHko ikasleek txotxongiloak bitartekari gisa erabiltzen dituzte, zer dela eta? Ikasleek aurretik aipatutako gertutasun hori sentitzen dutelako haiekiko, haien arteko komunikazioa erraztuz, eta giroa erosoagoa eginez. Hain zuzen ere, adituek esan bezala, irakasleei komunikatzeko gai ez diren gauzak komunikatzen dizkiete, behar bereziak dituzten haurrak barne. Delgado Carrascok (2011) aipatzen duen bezala, haurra txotxongilo batekin libre sentitzen baita nahi edo behar duena eta agian ausartzen ez dena adierazteko, bere segurtasun ezak gaindituz.

Bi kasuetan txotxongiloaren erabilera irakaslearen aldetik ematen da gehienetan, hau da, orokorrean ikasleek gutxiago erabiltzen dituzte. Ikasleen adinari dagokionez, LasarteIrakasleak dio bere ikasgelako haurrak, txikiak direla eta, txotxongiloen erabilera murriztuagoa dela. Hau horrela izanik, bi irakasleek adituek esandako gomendioak jarraitzen dituzte, hala, txotxongiloa haien tresna bilakatzen da, ikasleekin komunikatzeko, istoriotxoak edo ipuinak kontatzeko... Lasarteko ikasgelaren kasuan, ez da ipuin-kontakteta txotxongiloen bidez behatu, aldiz, jolas dramatikoan bai.

Hala eta guztiz ere, bai Lasarte, bai Tolosako ikasleak txotxongiloekin haien kabuz aritu diren egoerak horiek azalduko dira. Alde batetik, Lasarteko ikasgelako behaketa-taulan ikusi daitekeenez, eta LasarteIrakasleak baieztatu duenez, ikasleek berez, ez dituzte txotxongiloak, aldiz, panpinekin jolasten dute haien jolas librean. Hala ere, BilboAdituak dio txotxongiloekin lanean hasteko lehenengo pausoa izan daitekeela hau, txotxongiloak izatez panpinak batira. Hau horrela izanik, esan daiteke ikasleei txotxongiloak eskura jarriko balitzaizkie, panpinekin egiten den moduan, baliabide hau erabiltzeko aukera oso altua izango litzateke, behaketan ikusi den bezala, ikasleek interes handiz eta modu aberasgarri batean aurrera eramaten duten jolasa baita.

Modu batera edo bestera, txotxongilolaritza lantzen dela ikusi da, baina kontuan izan behar da txotxongiloak animatzen diren modua oso garrantzitsua dela, txotxongiloek bizia emateko gai izan behar gara esaten baitute adituek. Adituen ustez garrantzitsua da formakuntza oinarrizko batzuk jasotzea horretarako. Irakasleen kasuan, biek jaso dute prestakuntza modu batera edo bestera, baina TolosaIrakasleak zehazkiago txotxongiloen inguruan. LasarteIrakaslearen prestakuntza animazioari dagokionez murriztuagoa izan dela behaketa taulan ikusi daiteke, TolosaAdituak aipatu dituen arnasketa eta begirada ez direlako kontuan

hartu. Curci-ren (2007) ustez, ideia hau jarraitzea garrantzitsua da, txotxongiloa hainbat teknikaren bidez animatzeko sortzen den objektu bat baita, bizitza simulatzeko ilusioa sortzeko helburuarekin.

Beste alde batetik, Tolosako ikasgelan ere ikasleek txotxongiloak haien kabuz egiteko eta animatzeko aukera izan dute Ulermen Proiektuetako batean. Kasu honetan, Lasarten ez bezala, Tolosaren proiektuari dagokionez, txotxongiloen erabilera ez da soilik ekintza jakin baterako edo denbora labur eta zehatz batean haurrekin hitz egiteko erabiltzen, baizik eta, modu interdiziplinar batean, uneoro komunikazio tresna bezala erabiltzen. Hau da, txotxongiloak Ulermen Proiektu jakin baterako egin eta landu dituzte, baina ondoren, proiektu hori bukatzean, hurrengo proiektua egiteko DBHko ikasleek txotxongiloak bitartekari bezala erabiltzen jarraitu dute ere.

Hau ikusita, esan daiteke ez dagoela inongo arazorik adinari begira txotxongiloak lantzeko orduan. Egia da, modu ezberdinetan egin beharko dela, baina modu batera edo bestera landu daitekeela baieztatu da. Martínez Monarrek (2007) dioen bezala, txotxongiloa ikasgelan baliabide gisa erabiltzean garrantzitsuena teknika mistoak erabiltzea eta txotxongiloa bere ahalmen guztiekin aztertzea izango litzateke, ikasgelako lanaren barruan sormen-aukera handia eskaintzen baitute. Esaterako, txotxongiloak sortzeari dagokionez, BilboAdituak bigarren zikloko haurrekin egitea gomendatzen du. Hain zuzen ere, TolosaAdituak elkarrizketan modu erraz eta sinple batean egitea posible dela baieztatu du.

Honetaz gain, hezkuntza emozionalari berebiziko garrantzia eman zaio. LasarteIrakasleak eta TolosaIrakasleak diotenez ikasleek erraztasun handiagoa aurkitu dezakete haien sentimenduak txotxongiloari kontatzen, irakasleei baino. Bestalde, txotxongiloa ikasleek erabiltzen dutenean, TolosaAdituak azaltzen duen bezala, haien Nia irudikatzen dute, beraz, hurrek inkontzienteki, haien emozioak eta egoera pertsonala txotxongiloan isladatzen dituzte, irakasleei informazio oso baliotsua komunikatuz. Hain zuzen ere, O'Harek (2005a) baieztatzen du txotxongiloek lotura emozionala eta kognitiboa ezartzen dutela hurrek dituzten ideiekin, istorioekin, eta bizipen-egoerekin. Hori gutxi balitz, autoestimua lantzeko oso tresna baliagarria da, txotxongiloa eskutan dutela, asko askatzen baitira.

Beste bide batetik jarraituz, argi dago bi irakasleentzat zein garrantzitsua den inklusio prozesua, behaketa-taulan zein elkarrizketetan batez ere ikusi da ikasle guztien partehartzea

bermatzen dela, eta denei berdin entzuten eta arreta ematen zaiela. Bestalde, haien artean ere entzuketara aktiboa eta errespetua lantzen dituzte, hitz egiteko txandak errespetatuz, esaterako. Eusko Jaurlaritzak (2015) eskola inklusiboa izateko bete behar den oinarrizko ideia aurrera eramaten dela esan daiteke, hala, hezkuntza-aukerak eta laguntza –curriculum-alorrekoa, pertsonala edo materiala– ematea haien ikasle guztiei, haur guztiei egokitutako testuinguru bat sortuz. Gainera, bi irakasleak bat etortzen dira esanez, txotxongiloekin lan egiteak inklusio prozesua aurrera eramaten laguntzen duela. Batez ere, behar bereziak dituzten haurrentzako oso tresna baliagarria bilakatu daitekeela ikusi delako. TEA daukaten ikasleetatik, totalka hitz egiten dutenetara arte, erraztasun handigoz komunikatzeko tresna topatzen baitute txotxongiloetan. Beraz, Albiach-ek (2017) ideia baieztatzen dela esan daiteke, hain zuzen ere, bere ustez, txotxongiloen lanketa, eskaintzen dituen berezitasunengatik, behar bereziak dituzten ikasleen zailtasunen tratamenduan bizitasun gehien duen ildoetako bat da ikasgelaren testuinguruan.

Diziplinartekotasunari dagokionez, BilboAituak dio txotxongiloa diziplinarteko tresna bezala erabili daitekeela, zeharka, hezkuntzaren arlo guztiak landu daitezkeelako eta gainera modu oso aberasgarri batean. Izan ere, Onieva (2011) bat dator ideia honekin, bere ustez, ikasgelako edozein ekintza dramatizatu baitaiteke hainbat jarduera eta ariketaren bidez. Lasarteko eskolan ez da behatu txotxongiloak diziplinarteko tresna gisa erabiltzen. Hala ere, LasarteIrakasleak ideia honekiko iritzi positiboa azaltzen du eta jakintza baduela ikusten da, diziplinartean lantzeko adibideak jarri baititu elkarrizketan. Hala eta guztiz ere, argi utzi nahi da ikasgelaren behaketa denbora labur batean egin dela, eta honek ez duela egia absolutua ziurtatzen.

Kontutan hartu beharra dago ere txotxongiloen erabilera eginez aurrera eramaten direen jolas edo ekintza guztiak talde handian eta elkarlanean burutu direla. Tolosaren kasuan argi gelditu da, elkarlana beste maila batera eraman daitekeela txotxongiloiei dagokienez. Hain zuzen ere, txotxongiloen bidezko elkarlana ez da soilik Herrikideko HH4ko ikasgelan eman, baizik eta komunitate osora zabaldu dela, komunitateko beste kide batzuk hartuz, kasu honetan DBHko ikasleak eta irakaslea izan direnak. Eta ez hori bakarrik, baizik eta herrira ere ireki direla, Topic Museoarekin ere kolaborazioa eginik.

Honek lotura zuzena du irakasleen formakuntzarekin, bai txotxongiloiei dagokienez, bai beste edozein esparruri dagokionez ere. TolosaAituak baieztatzen duen moduan, irakasle bat

beharbada ezin da hezkuntza munduko alderdi guztietan formatua egon, baina bai garrantzitsua dela lankideez eta beste profesionalez inguratuta egotea, jakintza hori jaso ahal izateko, betiere, irakasle bezala erakutsi behar den interes eta gogo hori ahaztu gabe.

Behaketa-taularen bidez, eta irakasleei eta adituei egindako elkarrizketen bidez txotxongiloak Haur Hezkuntzan landuz ikasleek jaso ditzaketen ikaskuntza nagusienak eta ikasgelara ekar ditzaketen onurak hauek dira:

- Elkarlanean lan egiten ikastea, txotxongiloek harremanak estutzen eta taldea kohesionatzen laguntzen baitute, inklusio-prozesua aurrera eramanez.
- Ikaskideen artean entzutea, arreta eta pazientzia mantentzen jakitea, hitz egiteko txanda noiz den jabetzea, etab.
- Ikasleen komunikazioa eta adierazkortasuna errazten eta hobetzen dute, sortzen duten gertutasunari esker partehartzean zailtasunak dituzten ikasleei erraztasunak emanik.
- Hizkuntzaren lanketa: esaldien osaketa, hiztegia, eta ahoskera.
- Funtzio ludikoa garatzen laguntzen dute: ikasleen fantasia, gozamina...
- Pentsamendu kritikoa eta ingurune soziala ezagutzen laguntzen dute: baloreak, pil-pilean dauden gaiak (berdintasuna, birziklapena...)
- Sormena eta irudimenaren garapena.
- Hezkuntza emozionalaren lanketa: emozioen identifikazioa laguntzen dute, eta emozioak adierazteko gertutasuna eskaintzen dute.

Txotxongiloek ekartzen dituzten onurak ikusita, BilboAdituak dioen bezala, eskola guztietan derrigorrez landu beharko litzatekeen altxor bat da. Hala ere, Martínez Moner-en (2008) arabera askotan, txotxongiloak beste entretenimendu bat bezala erabiltzen dira ikasgeletan, eskaini dezaketen aberastasun-potentziala galduz. Izan ere, BilboAdituaren eta Tolosa Adituaren ustetan, eta behaketan ikusi denez, txotxongiloen egoera gaur egun nahiko kaskarra da hezkuntzan, eskola gehienek esperientzia puntualetan erabiltzen dituzte, proiekturen batean laguntza bezala, gehigarri bat bezala. Hala ere, TolosaAdituak dioen bezala, behintzat agertzen dira, lehen beharbada ezta hori ere, orduan uste du hobetzen doala.

6.2. ESKUHARTZEAREN APLIKAZIOA

- **Hiru txerrikumeen ipuina (1. saioa)**

Saioa hasteko irakasleak arbelean itsatsitako emozioen txarteltxoak banaka banaka ateratzen joan da ikasleei txarteltxoetako haurrak nola sentitzen diren galdetuz. Ikasle gehienak emozio gehienak identifikatzeko gai izan dira, baina haien emozio berriak edo ez hain entzunak ere ageri izan dira: lotsa eta beldurra. Edonola ere, irakasleak adibideak ipini ditu emozioak dramatizatuz emozio berriak hobeto ulertzeko gai izan dira.

Irakasleak ipuinaren aurkezpena egiteko, txerrikumeak eta otsoak ere, haiek bezala, sentimenduak dituztela azaldu die ikasleei. Ondoren, txotxongiloak atera ditu eta aurkeztu egin ditu. Haurrak liluratuta gelditu dira, eta isilik eta adi-adi ipuina entzuten hasi dira.

Kontaktetan zehar, irakasleak pertsonaiak nola sentitzen joaten ziren azaltzen joan da, txarteltxoak laguntzaz. Besteetan ikasleei galdetu die ea nola pentsatzen zuten sentitzen zirela pertsonaiak, eta haur gehienek parte hartu egin dute, zein emozio zen asmatuz. Honetaz gain, ikasle gehienak pertsonaien esaldiak ondo antolatuta eta ahozkatuta esanez parte hartu dute interes handiz.

Ipuina amaitu denean, irakasleak txotxongiloek bizitako emozioen inguruko hizketaldi bat sortu du. Ikasleek emozio horiek noizbait sentitzen dituztela baieztatu dute, eta horietako batzuk noiz edo zein egoeratan sentitzen dituzten kontatzeko gai izan dira. Beste batzuk aldiz ez, nahiz eta irakasleak adibide errazak jarri, jada ez baitzeuden oso konzentratuta.

- **Hiru txerrikumeekin jolastuz (2.saioa)**

Ikasleak banku luze batean eseri dira, gainontzeko ikasle ikusleei begira, eta irakasleak, esleitu zaien txotxongiloaren arabera, ipuinaren kronologia kontuan hartuz orden jakin batean jarri ditu ikasleak, istorioaren haria hobeto jarraitu ahal izan dezaten.

Ikasle guztiek parte hartu dute eta haien pertsonaien esaldiak esan dituzte. Irakasleak ikasle batzuei lagundu egin behar izan die. Batzuk ez dira zentratu txotxongiloa animatzean, eta antzerkia egiten ariko balira bezala dramatizatu dute.

Hala ere, guztiek interesa erakutsi dute, bai parte hartuz, bai ikaskideei adi-adi entzunez.

Ondoren, jolas librean, irakasleak txotxongiloak eskura utzi dizkie. Batzuk txotxongiloak hartzera animatu dira talde txikietan. Modu honetan, askeago eta erosoago ikusi zaie, eta lehen ez bezala, txotxongiloak gehiago animatu dituzte.

- **Pertsonaiei bizia ematen (3. saioa)**

Irakasleak ipuineko pertsonaia bihurtuko direla azaldu die ikasleei, jolasaren azalpena emanaz: banaka ipuineko pertsonaia bat dramatizatu beharko dute (txerrikumea edo otsoa) irakasleak ematen dituen pautak jarraituz, eta gainontzeko ikaskideak dramatizatzen ari dena imitatu beharko dute. Hasiera batean, ez dute jolasa ondo ulertu, baina behin irakasleak adibide dramatizatu batzuk eman dituztean, hobeto ulertu dute eta pixkanaka jolasa hasi da.

Jolasa hastean, irakasleak ikasle bakoitzari dramatizatzeko hiru pautak eman dizkio: zein pertsonaia diren, zein emozio sentitzen ari diren, eta zein ekintza egiten ari diren. Hau ikasleei zaila egin zaie, eta ez dira gai izan irakasleak esaten zuena dramatizatzeko. Irakaslea konturatu egin da eta soilik bi pautak adierazi dizkie: pertsonaia eta emozioa, edo pertsonaia eta ekintza. Adibidez, “orain otsoa zara eta oso haserre zaude” edo “orain otsoa zara eta txerrikumeen atea jotzen ari zara” Gainera, irakasleak ipuinean agertzen diren ekintzak hobeto ezagutzen zituztela konturatu da, beraz, horiek adierazi dizkie. Azkenean, pixkanaka jolasa borobiltzen joan da eta ikasleak pertsonaiaren paperean sartuta dramatizatzeko, ikaskideak imitatzeke eta ondo pasatzeko gai izan dira.

6.2.1. ESKUHARTZEAREN ONDORIOAK

1. saioari dagokionez, emozioen identifikazioa nahiko ondo eman dela esan daiteke. Txartelak erabiltzea oso lagungarria izan da, horrela ikasleek laguntza bisuala topatu dute, batez ere, berriak ziren emozio horiei begira. Gainera, egunerokotasunean emozioak lantzeko erabili daitezkeen errekurtso bat izan daiteke, esate baterako, ikasgelako pareta batean jarri daiteke, ikasleen eskura, eta adibidez, ikasleen artean liskar bat egoten denean, “emoziogune” honetara hurbildu daitezke eta txarteltxo bat aukeratuz nola sentitzen diren adierazi dezakete. Bestalde, jolas dramatikoa egiteko ere erabili daiteke, hala nola, 3. saioan aurrera eramanean den jolasean, pertsonaia eta emozioa esatean, emozio horren txarteltxoa erakutsi zezakeen irakasleak, ikasleek emozioa hobeto identifikatu ahal izateko. Hori gutxi balitz, txarteltxoak

haurrek ezagutzen ez dituzten emozioak sartzeko erabili daitezke, eta txotxongiloen bidez edo dramatizazioaren bidez azalpenak eman.

Beste alde batetik, ikasleen entzute-aktiboan eta arretan ikusi da zein nolako interesa erakutsi duten errekurtsio berri honekiko. Txotxongiloekin dramatizatzen hasterakoan haien aurpegietan lilura ikus zitekeen. Gainera, haien partehartzea oso ona izan da, behar zen unean pertsonaien esaldiak zentzuz eta egoki esanez. Hau horrela, saioaz disfrutatu dutela esan daiteke.

2. saioari dagokionez, jarduera nahiko berria zenez, ikasleek inoiz ez baitituzte txotxongiloak modu horretan landu, beharbada hobe litzateke antzezpena egin aurretik txotxongiloekin esperimentatzen utzi izan balitzate, txotxongiloa pixka bat manipulatzeko ikasteko eta nola animatzen den ikusteko. Agian irakasleak oinarrizko mugimendu batzuk erakutsi ziezazkiekeen txotxongiloak animatzeko.

Hala eta guztiz ere, irakasleak hontaz konturatzean, antzezpenak egin ondoren, unean txotxongiloak ikasleen eskura uztea erabaki du, ea nola moldatzen ziren ikusteko, eta hain zuzen ere, askeago eta txotxongiloa gehiago animatuz ikusi ditu ikasleak. Hau, beharbada, antzezpen guztiak egin ondoren aurrera eramane delako gertatu da, hau da, ikasleek jada esperientzia pixka bat izanik erraztasuna hartu dute antzezpena egin ondoren, eta gainontzeko ikaskideen ereduak jaso ondoren. Edo agian, giro lasaiago bat sortu delako izan da, ikuslerik gabe eta gidatu gabea.

3. saioari dagokionez, hasiera batean irakasleak pentsatua zuen jarduera ez da pentsatzen zen bezala aterata, azken finean, ikasleen adinaren arabera jarduerak prestatzea oso garrantzitsua dela kontuan izan behar da. Kasu honetan, beharbada irakasleak jarduera mailaz maila antolatu zezakeen, hau da, lehenik dramatizazio sinpleagoekin hasi zitekeen, pertsonaia imitatzea soilik adibidez, eta gero pixkanaka pertsonaiari emozioak edo ekintzak sartzen joan. Horrela, irakasleak haurrek nola erreakzionatzen duten ikus zezakeen, eta konplexutasun-maila igo beharke lukeen edo ez ikusi. Edonola ere, irakaslea egoerara egokitzea lortu du, eta haurrek ekintza aurrera eramateko gai izan dira. Uneoro interesa erakutsi dute, lotsatiak diren gehienek ere partehartuz.

1. eta 3. saioetan ikusi da, azalpenak ematerakoan, irakasleak dramatizazioa erabili duela. Dramatizazioaren bidez azalpenak edo adibideak emateak (emozioak imitatuz, pertsonaiak imitatuz, egin beharreko ekintza imitatuz...) haurren ulermenean laguntzen duela baieztatu da, beraz, irakasleentzako baliabide on bat izan daitekeela esan daiteke.

7. ONDORIO OROKORRAK ETA HOBETZEKO ALDERDIAK

Aurrera beharrez, amaierako ondorioei bide emango zaie. Hasteko esan daiteke, lana aurrera eramanez ahal izateko ezarri diren helburuak bete ditudala, baina prozesua aurrera joan ahala, aurrerago azalduko den moduan, antolaketaren ordena ez da guztiz mantendu. Ezarritako lehen helburuari dagokionez, Lasarte-Oriako Landaberriko Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasgela batean jolas dramatikoaren eta txotxongiloen erabileraren behaketa egin ahal izan dut, inklusioa eta hezkuntza emozionala modu horretan lantzen direla ikusiz.

Gainera, bigarren helburua ere bete ahal izan dut, ikasgelako irakasle-tutorearekin elkarrizketa bat aurrera eramatea lortu baita, behaketa-taulan jasotakoa eta elkarrizketaren emaitzak alderatu ahal izanik. Hori gutxi balitz, Gipuzkoako beste eskola batean, Tolosako Herrikide Eskolan, hain zuzen ere, txotxongiloen inguruko informazioa jaso ahal izan dut, sortutako proiektu interesgarria ezagutu ahal izanik. Horrela, Haur Hezkuntzako eskoletan txotxongiloen fenomenoaren nondik-norakoa den ezagutu ahal izan dut.

Jarraitzeko, ezarritako hirugarren helburua betetzea lortu da, txotxongiloen munduko bi adituri, kasu honetan, Tolosako Topic Museoko Pedagogia Saileko langile bati, eta Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaile bati, txotxongiloaren erabileraren inguruko elkarrizketak egitea lortu dut, baliabide hauei buruz daukaten jakintzak jasoz.

Diagnosiaren ondorioak atera ondoren konturatu naiz, jolas dramatikoaren eta txotxongiloen inguruko ondorio orokor borobil bat atera dezakedala. Bai behaketa-taulan bai elkarrizketetan jolas dramatikoak eta txotxongiloen erabilerak hainbat onura ekartzen dituzte Haur Hezkuntzako ikaskuntza-prozesuan. Hain zuzen ere, interesgarria izan da biek ikaskuntza eta onura berdintsuak oparitzen dizkigutela konturatzeari. Hala, hauek dira nagusienak:

- Ikasleen komunikazio eta adierazpen gaitasunean onurak ekartzen dituzte, bai alderdi artistikoan, bai alderdi sozio-emozionalean.

- Hizkuntzaren garapenean aurrerapenak sortzen dituzte: esaldien osaketa, hiztegia eta ahoskera lantzen dira.
- Elkarlana sustatzen dute, ikaskideen arteko komunikazioa hobetzen da eta harremanak estutzen dira, eta ikaskideetatik ikasteko aukera ematen da.
- Sormenaren eta irudimenaren garapena ematen da.
- Arazo-egoerak edota pil-pilean dauden gai garrantzitsuak ulertzen, lantzen eta barneratzen laguntzen dute.
- Diziplinarteko baliabide edo tresna bezala erabili daitezke.

Guzti honetaz gain, bai jolas dramatikoak, bai txotxongiloak landuz, hezkuntza emozionala, zein inklusioa landu daitezkeela argi gelditu da. Alde batetik, ikasle guztien partehartzea bermatzen duten jarduerak lantzen dira, elkarlanean egiten direnak. Azken finean jolas dramatikoak eta txotxongiloak haien zentzu pedagogikoa galduko lukete bakarka lantzeko izango balira, beraz, oinarri guztiz kolaboratiboa dutela uste dut. Gainera, behar bereziak dituzten haurrek baliabide hauei esker, komunikatzeko orduan erraztasun gehiago aurkitzen dituztela baieztatu da. Ondorioz, inklusio prozesua aurrera eramatea ahalbidetzen duten baliabideak direla esan dezakegu. Beste alde batetik, hezkuntza emozionala lantzeko tresna paregabeak direla egiaztatu ahal izan da, bai jolas dramatikoaren, bai txotxongiloen bidez, emozioen identifikazioa, eta hauen adierazpena ahalbidetzen delako, haurrentzako giro erosoagoa eta gertutasunezko egoerak sortuz.

Dena dela, jolas dramatikoak eta txotxongiloen egoera gaur egungo eskoletan nahiko kaskarra dela ikusi ahal izan dugu. Hain zuzen ere, proiektu batzuen ekintza zehatz bezala, edo une puntualetan bakarrik erabiltzen dira orokorrean. Alabaina, Tolosako Herrikide Eskolako proiektua eredu esanguratsu bezala hartu dezakegu, kasu honetan, txotxongiloen erabilera komunikatzeko baliabide bezala erabiltzen baita uneoro, ekintza isolatu bat bilakatu gabe, beste askotan gertatzen den bezala. Are gehiago hezkuntza emozionala, inklusioa eta diziplinartekotasuna bere baitan hartzen dituen proiektua da, komunitatera irekitzen den proiektu bat dela ere ahaztu gabe. Hau horrela izanik, nire aburuz oso proiektu beteak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako oso aberasgarria da.

Egia da, orain arte ezarritako helburu guztiak bete direla, hala ere, azken helburuari dagokionez, zeina eskuhartze bat behaketatik eta elkarrizketatik eskuratutako informazioaren arabera diseinatzea eta aplikatzea zen, kasu honetan, ordena ezin izan da mantendu. Hain

zuzen ere, eskuhartzea Tolosako irakaslea eta bi adituen elkarrizketak egin aurretik diseinatu eta aplikatu da, jasotako informazioaren arabera ezin eginik. Gauzak horrela, diseinatu eta aplikatu dudana eskuhartzea elkarrizketetan eskuratutako informazioarekin alderatuko dut, komunean aurkitu ditudan puntuak eta gehiago landu edo hobetu ditzakedanez egin ondoren ohartzuz.

Aurrenik, eskuhartze hau behin ikasgelaren behaketa eta irakasle-tutorearen elkarrizketa eginda diseinatu eta aplikatu dela argi gelditzea nahi dut, zer dela eta? Eskuhartzea egiteko, ikasgelako egoera orokorra kontuan hartu dudalako ikasleei ahalik eta hobekien egokitu ahal izateko: lantzen ari ziren Hiru Txerrikumeen proiektua, ikasleen beharrak, ikasleen interesak, txotxongilo eta jolas dramatikoaren lanketa falta, etab.

Diagnosian, txotxongiloei dagokienez, hauek lantzeko hainbat modu gomendatzen dituzte irakasleek eta adituek, nik horien artean, txotxongiloak ipuin bat kontatzeko erabili ditut. Egia da, kasu honetan, txotxongiloek ez dutela narratzailearena edo bitartekariarena egin, hau da, ez dira ikasleekin komunikatu, baizik eta soilik ipuinaren protagonista bezala agertu dira, haien papera antzeztuz, baina hori da antzerkiari dagokiona, desberdinak baitira narrazioak eta antzezlanak. Hala ere, hiru saioretan inklusio prozesua aurrera eraman dela esan dezaket, ikasle guztiek partehartu baitute eta ikaskide guztiek entzunak izan baitira. Gainera, hezkuntza emozionala ere landu da, batez ere, emozioen identifikazioari dagokionez. Beste alde batetik, adituek gomendatzen duten moduan, ikasleen adina kontutan izan da, txotxongilo motaren aukeraketan asmatu dudala uste dut, haurrek erabiliko dituztela jakinda, sinpleak, manipulatzeko errazak eta gertukoak (eskuan jartzeko direlako) egin ditudalako (ikusirik irudiak eranskinetan). Aldiz, eskuhartzearen ondorioetan aipatu dudana bezala, eskuhartzea berriro errepikatuko banu, haurrei txotxongiloekin esperimentatzeko denbora gehiago emango nieke, batez ere ipuinaren antzezpeneren aurretik, tresnarekin ohitu ahal izateko.

Hari beretik, egindako eskuhartzeaz gain txotxongiloak beste modu batera erabiltzea interesgarria izango litzatekeela uste dut. Niri tresna bezala erabiltzea gustatuko litzaidake, esate baterako, galtzerdi txotxongilo maskota bat aurkitu eta Tolosan bezala haurrekin komunikatzeko bitartekari bezala erabili, batez ere, zailtasunak dituzten horiekin, edo gelan hitz egitea kostatzen zaien horiekin. Gainera, prestatutako eskuhartzearekin bateragarria izan

zitekeen, txotxongiloekin dramatizatutako ipuinaren aurkezle izanik, edota jolas dramatikoan azalpenak emateko.

Gauzak horrela, pena da elkarrizketak egin aurretik eskuhartzea aurrera eraman behar izana, irakasle eta adituen bidez jaso ditudan jakintzak oso baliotsuak izan baitira. Hala ere, nire eskuhartzearen potentziala nondik norakoa zen ikusteko balio izan dit, eta oso interesgarria izan da alderaketa hori egin ahal izatea, alde batetik, nire indarguneak ikusi ahal izan ditudalako, eta bestetik, kontutan hartu beharreko ideia oso interesgarriak jaso ahal izan ditudalako.

Honetaz gain, jolas dramatikoari dagokionez, lan honetan bigarren plano batean gelditu dela iruditu zait. Eskuratu den informazio gehiena txotxongiloen ingurukoa izan da, beraz, jolas dramatikoaren inguruan jaso dudana nahiko eskasa izan da kantitate aldetik. Behar bada interesgarria izango litzateke Gipuzkoako beste eskola batean jolas dramatikoa nola ematen den behatzea edota hau lantzen duten irakasle gehiagorekin elkarrizketa bat izatea. Horrela ere, Lasarteko ikasgelan lantzen den jolas dramatikoa beste ikasgela batean edo batzuetan lantzen denarekin alderatu ahal izateko.

Amaitzen joateko, hemendik EAEko irakasle guztiak dramatizazioaren mundua gehiago eta hobeto ezagutzera animatu nahiko nituzke, ohiko antzerki gidatuekin ez gelditzea gomendatuz, dramatizatzeko ehunka modu eta jolas baitaude. Azken finean, dramatizazioaren bidez, inklusioa aurrera eramanez, hurrek trebetasun sozialak, emozionalak, kognitiboak eta linguistikoak garatuko dituzte, eta garrantzitsuena, modu ludiko batean, inkontzienteki, ondo pasatuz ikasiz.

Gauzak horrela, nire aburuz garrantzitsua da irakasleek prestakuntza bat jarraitzea. Izan ere, Eines eta Mantovani-ren ustez (1980) irakasleak dramatizazioa ulertu ahal izateko, honen inguruko lanketa eta esperimentazioa egin beharko ditu. Gainera, kontuan hartu beharra dago, txotxongiloen lanketari dagokionez, irakaslea ez dela soilik informazio-igorlea izan behar, baizik eta katalizatzailea ere izan beharko da, esperientzian parte hartuz eta antzerki-tekniken oinarritzko ezagutza izanik (Motos eta Tejedó, 1999). Egia da ikastaro edo tailer espezializatueta, esate baterako, Topic-en edo TXFest-en antolatzen dituzten horietara, joatea deserosotasuna sortzen dien irakasleak egongo direla, baina TolosaIrakasleak dioen bezala, zu, irakasle gisa, zure erosotasun-eremutik ateratzen ikasi behar duzu, nire ustez, hori

baita irakasle bezala daukazu grina, gogo eta bokazioa mantentzen ahalbidetuko dizuna. Dena den, lan honen bidez argi ikusi ahal izan dugu, dramatizazioan prestatzeko bide bakarra ez direla aipatutako ikastaro espezializatu hauek, baizik eta, online baliabideen, kultur ikuskizun eta ekitaldietara joatearen eta beste irakasle batzuekin lankidetzan aritzearen bidez ere jakintza asko eskuratu daitekeela. Pertsonalki, irakasleei dramatizazioari aukera bat ematea gomendatzen diet, ikasleen ikaskuntza-prozesuan dituen onurak ikusteaz gain, ikasleengan sortzen den lilura eta konexio hori sumatu ahal izango dutelako.

Borobilduz, etorkizuneko irakasle izango naizen aldetik, txotxongiloak eta jolas dramatikoak zalantzarik gabe, nire ustez funtsezko zeregina dute haurren garapen integralean. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako ikasgeletan haurren ikaskuntza esanguratsua eta ongizatea sustatzen duten tresna indartsuak dira. Hain zuzen ere, esperientzia ludiko eta aberasgarria eskaintzen diete haurrei, hauen bidez, modu aktiboan ikasiz, trebetasun kognitibo, linguistiko, sozial, emozional eta motorrak modu integratuan garatzen dituzte, eta irudimenezko eta sormenezko solasgune batez gozatzen dute, betiere inklusio-prozesua aurrera eramanez.

8. ESKERRAK

Hasteko, Lasarte-Oriako Garaikoetxea-Landaberri ikastolako profesional eta ikasle guztiei nire esker beroenak eman nahi dizkiet. Batez ere, eskerrik asko Triniri, oparitutako esperientzia eta jakintzagatik, eta etxean sentiarazteagatik.

Bestalde, Tolosako Herrikide eskolari eta Topic Museori eskerrak eman nahi dizkiet, haien ateak niretzat zabaltzeagatik, zehazki, eskerrik asko Nekaneri eta Asierri, zuen jakintzak eta esperientziak partekatzea oso aberasgarria eta baliotsua izan da niretzat, eskerrik asko zuen denboragatik.

Modu berean, eskerrak eman nahi dizkiot Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko laguntzaileari, Josu Cámarari, eskerrik asko oparitutako denboragatik eta jakintzagatik.

Ahaztu gabe, eskerrak eman Euskal Herriko Unibertsitateari, eta bi urte hauetan zehar izan ditudan irakasle guztiei, zuetako bakoitzetik zerbait baliotsua ikasi dut, ziur nago. Eskerrik asko bokazioaren sugarra piztuta mantentzen jarraitzeagatik.

Eskerrik asko aita, ama eta Xabi. Eskerrik asko Jokin. Guztiagatik.

Eta azkenik, nola ez, eskerrak eman nahi dizkiot Amaia Álvarez-Uriari, arreta eta ardura osoz zuzendari-lan paregabea betetzeagatik. Eskerrik asko, behar izan dudanero nire behar eta kezkei erantzuten asmatzeagatik, eta bide honetan zehar transmititutako lasaitasunagatik.

9. ERREFERENTZIAK

- Aguirre Jácquez, G. A. (2020). ¿Vamos hacia una educación inclusiva? En J. A. Trujillo Holguín, A. C. Ríos Castillo y J. L. García Leos (coords.), *Desarrollo profesional docente: reflexiones y experiencias de inclusión en el aula* (pp. 67-76)
- Albiach, M. A. O. (2013a). Los títeres: una herramienta para la escuela del siglo XXI. *Revista Española de Pedagogía*, 71(255), 277–291.
<http://www.jstor.org/stable/23766964>
- Albiach, M. A. O. (2013b). “Los títeres: un recurso educativo”. *Educación social. Revista de Intervención Socioeducativa*, 54, 164-179.
<https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/97065>
- Albiach, M. A. O. (2017). Cuando los muñecos curan: títeres, educación especial y terapia. *Revista de Educación Inclusiva*, 6(3).
<https://revistaeducacioninclusiva.es/index.php/REI/article/view/159/153>
- Álvarez-Uria, A., Tresserra, A., Zelaieta, E., & Vizcarra, M. T. (2015). Juego, teatro y educación infantil. La obra teatral «Kubik» y su valor pedagógico- artístico. *Enseñanza & Teaching: Revista Interuniversitaria De Didáctica*, 33(1), 143–161.
<https://doi.org/10.14201/et2015331143161>
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional. Programa para la educación secundaria postobligatoria. Praxis.
- Bisquerra, R. (2005). Educación emocional y bienestar. Praxis.
- Chalmers, D. (2010). Teatro 3-6 Guía práctica para enseñar teatro a niños y niñas de infantil. Graó.
- Converso, C. (2000) Entrenamiento del titiritero. Escenología.
- Curci, R. (2007) Dialéctica del titiritero en escena. Colihue.

Davidson, J. (1996): Emergent Literacy and Dramatic Play in Early Education. Delmar.

Delgado Carrasco, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en educación infantil. *Pedagogía magna*, 11, 382-392. https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as_sdt=0%2C5&as_vis=1&q=Delgado+Carrasco%2C+M.E.+%282011%29.+La+dramatizaci%C3%B3n%2C+recurso+did%C3%A1ctico+en+educaci%C3%B3n+infantil.+Pedagog%C3%ADa+magna%2C+11%2C+382-392&btnG=

Dussan, C. (2010). Educación Inclusiva. Un Modelo de Educación para Todos. *Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior*, (8), 73-84. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3777544>

Eines, J. eta Mantovani, A. (1980). Teoría del juego dramático. MEC.

Eisner, E. (1972). Emerging Models for Educational Evaluation. En *The University of Chicago Press Journals, The School Review* (pp. 573-590)

Eusko Jaurlaritzak. (2015). 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak. Berreskuratua: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2015/12/22/237/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/>

Fernández-Berrocal, P., & Extremera, N. (2002). La inteligencia emocional como una habilidad esencial en la escuela. *Revista Iberoamericana de Educación*, 29, 1-6.

Fuertes, M. T. (2011) La observación de las prácticas educativas como elemento de evaluación y de mejora de la calidad en la formación inicial y continua del profesorado. *Revista de Docencia Universitaria*, 9(3), 237-258. 10.4995/redu.2011.11228

García del Toro, A. (2004). Comunicación y expresión oral y escrita: dramatización como recurso. Grao.

- González García, J. (2015). Dramatización y educación emocional. CPU-e, Revista de Investigación Educativa, (21), 98-119.
<https://cpue.uv.mx/index.php/cpue/article/view/1723>
- Goleman, D. (1996) Inteligencia emocional. Kairós.
- Maldonado, L. (2011) Cultura y diversidad, de la educación especial a la educación en diversidad. Pedagogía Magna, (11), 134-141.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3629158>
- Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela. Artetzblai.
<https://octaedro.com/wp-content/uploads/2021/04/13171.pdf>
- Martínez, B (2017). La diversidad: el reto de la educación inclusiva. Educa UMCH (10) 107-116 <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7338747>
- Martínez Moner, T. (2008). Estratègies metodològiques i recursos didàctics per atendre l'alumnat amb NEE, en contextos escolars ordinaris, utilitzant els titelles com a eina en la intervenció. [en línea] <<http://www.xtec.es/sgfp/llicencies/200607/memories/1642m.pdf>>
- Mesas, E. C. (2019) Construir, animar e imaginar. Los títeres y los muñecos como recurso en el aula y en la mediación artística. En López Martínez, M. D. et al. (Eds.), *Interacciones artísticas en espacios educativos* (pp. 205-237). Nau Llibres.
- Motos, T. (2003). Cerebro emocional, educación emocional y expresión corporal. En *Expresión, Creatividad y movimiento* (pp. 101-118). Amarú.
- Motos, T. (2009). El teatro en la educación secundaria. *Revista virtual: Creatividad y Sociedad*, 14.
- Motos, T., Tejedo, F. (1999): *Prácticas de dramatización*. La Avispa.

- Navarro, M. R. (2005). El valor pedagógico de la dramatización: su importancia en la formación inicial del Profesorado (Doktorego-tesia). Universidad de Sevilla, Sevilla.
- O'Hare, J. (2005a). Introduction to puppetry in education. En Bernier, M.; O'Hare, J. *Puppetry in education and therapy*. (p. 1-3). Bloomington: Authorhouse.
- O'Hare, J. (2005b). "Puppets in education: process or product?". En: Bernier, M.; O'Hare, J. *Puppetry in education and therapy*. (p. 63-68). Bloomington: Authorhouse.
- Onieva, J. L. (2011). La dramatización como recurso educativo: estudio de una experiencia entre estudiantes malagueños de un centro escolar concertado y adolescentes puertorriqueños en situación de marginalidad.(Doktorego-tesia). Universidad de Málaga, Málaga.
- Pellicer, I. (2011) Educación Física Emocional: De la teoría a la práctica. INDE.
- Piaget, J. (1990). La formación del símbolo en el niño. Fondo de Cultura Económica.
- Rogozinski, V. (2001). Títeres en la escuela: expresión, juego y comunicación. Noveduc Libros.
- Sapon-Shevin, M. (2013). La inclusión real: Una perspectiva de justicia social. Revista de Investigación en Educación, 11 (3), 71-85. <http://repositorio.minedu.gob.pe0>
- Szulkin, C.; Amado, B. (2006). Una propuesta para el uso del teatro de títeres como herramienta socio-pedagógica en las escuelas rurales. Comunicarte.
- Taylor, S. J., Bogdan, R. (2008). La entrevista en profundidad. Métodos cuantitativos aplicados, 2, 194-216.
- Tejerina, I. (1999). El juego dramático en la educación primaria. Textos de didáctica de la lengua y la literatura, 19, 33-44.

Tejerina, I. (1994). Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas. Siglo Veintiuno.

Zabalza, M. A. (2008). Didáctica de la Educación Infantil. Narcea.


ERANSKINAK

Eskuhartzearen proposamena:

- Eskuz egindako txotxongiloak



- 1. saioaren irudiak



- 2. saioaren irudiak

